



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abuztuaren 22a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-25/CCOI-00010. “Next Generation funtsekin finantzatutako hezkuntza-sistema digitalizatzeko programa (2021-2024)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/CCOI-00010. “Next Generation funtsekin finantzatutako hezkuntza-sistema digitalizatzeko programa (2021-2024)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Next Generation funtsekin finantzatutako hezkuntza-sistema digitalizatzeko programa (2021-2024)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c)

artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*ORRIALDEA*

TERMINOEN GLOSARIOA.....	4
I. SARRERA	5
II. HEZKUNTZA-SISTEMA DIGITALIZATZEKO PROGRAMA (#ECODIGEDU PROGRAMA)	6
III. HELBURUAK ETA IRISMENA.....	10
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	12
IV.I Konklusioak	12
IV.II Gomendioak	15
V. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA.....	15
VI. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	16
1. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	17
2. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREKIN LOTUTAKO OHARRAK ETA AURKIKUNTZAK	18
1. ERANSKINA: IKASNOVA PROGRAMA	35
2. ERANSKINA. IKASTETXEETAKO DIGITALIZAZIOAREN GAINKO ADIERAZLEAK	37
3. ERANSKINA. IKASTETXE PUBLIKO KOPURUARI ETA IKASTETXE BAKOITZEKO MATRIKULA KOPURURI BURUZKO DATUAK.....	41
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK.....	42
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	45

TERMINOEN GLOSARIOA

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari (SEM) dagozkion terminoak

- Osagaia: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) egituratzen duten 30 ataletako bakoitza.
- Neurriak: osagai batean sartuta dauden erreformen eta inbertsioen multzoa.
- Proiektua: arduradun baten zuzendaritzapean (entitate gauzatzailea) dauden ekintzen, baliabideen eta bitartekoen multzoa, sortua Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko neurriak definitzean xedetzat jarritako helburu edo emaitzak epe jakin batean erdiesteko.
- Azpiproiektua: proiektu baten zatiketa, uztartuta daramana baliabide ekonomikoak transferitzea eta azpiproiektuaren arduradun den entitate gauzatzaileak harturiko konpromisoa, mugarri eta helburuak betetzeko.
- Jarduketa: proiektu edo azpiproiektu baten lehen zatiketa-maila, kudeaketarako eta jarraipena egiteko.
- Programa: kudeaketa eta jarraipena errazte aldera taldekatzen diren proiektuen multzoa.
- Mugarriak eta helburuak: epe jakinetan erdietsi beharreko jomugak dira, eta ahalbidetzen dute egiaztatzea ea neurriek, proiektuek, azpiproiektuek edo jarduketa ildoek helburu edo emaitzak erdiestea lortu ote duten.
- CID mugarriak eta helburuak: Mugarri eta helburu horien lorpenaren arabera helarazten dira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak. Council Implementing Decision (CID) edo Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren parte dira.
- Mugarri eta helburu kritikoak: CID mugarriak eta helburuak betetzeko ezinbestean erdietsi beharreko mugarriak eta helburuak dira; ezarritako epeak errespetatzea ere ezinbesteko baldintza da betetze hori baliozkotzeko.
- Mugarri eta helburu ez-kritikoak: Kudeaketarako eta jarraipenerako mugarriak eta helburuak. Horiek ez betetzea ez du zuzenean CID mugarrien eta helburuen ez-betetzea.
- Erakunde betearazlea: erreforma- eta inbertsio-proiektuak edo -azpiproiektuak betetzearen ardura duen erakundea, betiere dituen eskumenen esparruan eta entitate erabakitzailearen irizpide eta jarraibideei loturik. Proiektuen erakunde betearazleak ministerioetako departamentu eta Estatuko Administrazio Orokorreko erakundeak dira; azpiproiektuen kasuan, berriz, ministerioetako departamentuak, Estatuko Administrazio Orokorreko eta administrazio autonomiko eta lokaletako entitateak, eta sektore publikoko beste partaide batzuk.
- Organo kudeatzailea: erakunde betearazlearen eremuan, proiektuaren edo azpiproiektuaren kudeaketa-txostena egin, sinatu eta izapidetzearen ardura duen organoa da. Era berean, proiektuaren edo azpiproiektuaren mugarrien eta helburuen aurreikuspen-txostenak eta betetze-ziurtagiriak sinatzeko ardura ere badu. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Hezkuntzako Idazkaritza Nagusi Teknikoa da organo kudeatzailea.
- Kudeaketa-txostena: dokumentu honek frogatzen du zein den egoera mugarri eta helburuen, Suspertze eta Erresilientzia Erregelamenduko gainerako betekizunen eta gastuari buruzko kontabilitate-informazioaren eremu bakoitzean (osagaia, neurria, proiektua edo azpiproiektua). Dokumentua egin eta sinatu du erakunde betearazle bat kudeatzen duen organoak, neurriaren erantzule den organoak edo erakunde erabakitzaile bateko osagaiaren erantzule den organoak.

#EcoDigEdu programari dagozkion terminoak (#EcoDigEdu kudeaketa-gidaliburua)

- **Ikasgela digitala:** irakaslana informazioaren eta telekomunikazioen teknologietan oinarrituta egiteko elementu tekniko hornituta dagoen ikastetxe bateko klase-gunea.
- **ChromeBook:** prestazio baxuko ekipo merkea, ChromeOS sistema eragile espezifiko duena, gailu-kudeaketako Googleren sistema batean integratuta dagoena eta berariaz prestakuntza-inguruneetarako diseinatuta dagoena.
- **Panel interaktiboa:** ukipen-pantaila duen bideo-panela, hatzaren edo erakusle baten bidez irudien gainean jarduteko aukera ematen duena.
- **Eramangarria:** dituen ezaugarri teknikoak tarteko leku batetik bestera erraz asko eraman daitekeen ekipo informatiko arina, baterien bidezko elikadura eta integratutako teklatura eta pantaila dituen.
- **OPS:** panel batean integratzen den prozesu-plaka. Sistema eragile estandarra eta ezaugarri tekniko konfiguragarriak dituen ordenagailu bat da, panel bakoitzerako prozesu-gaitasun guztiak ematen dizkion karkasa berezi eta zehatz baten gainean muntatzen dena; horrenbestez, ez da beharrezkoa kanpoko ordenagailu bat izatea datu-iturri eta/edo bideo-iturri gisa.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2023ko jarduketa-programarekin bat etorritik, hezkuntza-sistema digitalizatzeko #EcoDigEdu programari buruzko fiskalizazioa egin du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lan hori Kontuen Auzitegiarekin eta Kanpo Kontroleko Organo Autonomikoekin (OCEX) lankidetzan egin zen.

Landa-lana auditoretzako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantaldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen elkarlanarekin.

Landa-lana 2025eko otsailean amaitu zen.

Lan-lanaren emaitzak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko kontseilariari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Bada, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko kontseilariak alegazioak aurkeztu zituen ezarritako epearen barruan. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Kontuen Ganbera honen erantzunarekin batera, eta, horrenbestez, txostena behin betikotzat jotzen da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzuko eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusiko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.


II. HEZKUNTZA-SISTEMA DIGITALIZATZEKO PROGRAMA (#ECODIGEDU PROGRAMA)

Espainiaren eraldaketa digitalerako ibilbide-orria 2026rako Espainia Digitala agenda da, eta bertan txertatzen da inklusio digitala bermatzea helburu duen Gaitasun Digitalen Plan Nazionala ere.

Gaitasun Digitalen Plan Nazionalaren jarduketara-ildoetako bat hezkuntzarako gaitasun digitalak garatzea da, eta, horretarako, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak 2021-2027 aldirako Hezkuntza Sistemaren Digitalizazio eta Gaitasun Digitalen Plana (#DigEdu) egin zuen.

Bada, #DigEdu plana autonomia erkidegoekin lankidetzan aritzeko bi programa hauen bidez egituratzen da:

#DigEdu plana



Iturria: Guk geuk egina

Programa horiek «Next Generation EU» Suspertzerako Europako Bitartekoaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsez bidez finantzatzen dira.


Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen ordainketa zatika egiten da, eta ordainketak beti daude mugarriak eta helburuak betetzeari lotuta. Gastua egiten ez bada edo ezarritako helburuak osorik edo partzialki betetzen ez badira, Nafarroako Foru Komunitateak jasotako funtsak itzuli beharko ditu.

Gure fiskalizazio-lana #EcoDigEdu programan zentratu da.

#EcoDigEdu programa

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana hamar palanka-politikaren bidez garatutako lau ardatz transbertsaletan oinarritzen da. Politikok 31 osagai dituzte, eta 212 neurritan egituratzen dira (102 erreforma eta 110 inbertsio), eta Espainiak hainbat mugarri eta helburu betetzeko konpromisoa hartu du horiekin lotuta.

«Eraldaketa digitala» 2. ardatzaren barruan, #EcoDigEdu programa VII. palanka-politikako 19. osagaiaren «Hezkuntzaren eraldaketa digitala» inbertsioari dagokio.

#EcoDigEdu programa

Iturria: Guk geuk egina.

#EcoDigEdu programa Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Akordio bidez onartu zen 2021eko uztailaren 21ean (aurrerantzean, Konferentzia Sektorialaren Akordioa), 989 milioiko diru-esleipenarekin eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitarteko gauzatze epearekin¹.

#EcoDigEdu programa funts publikoekin sostengatutako ikastetxeak digitalizatzera bideratuta dago (ikastetxe publikoak eta itunduak); zehazki, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren mende dauden eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako prestakuntza ematen duten ikastetxeak (Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza –hau da, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta oinarrizko heziketa-zikloak–, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, araubide bereziko irakaskuntzak – hau da, hizkuntzak, arteak eta kirolak– eta Helduen Hezkuntza).

Programa horren bidez, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak eta Red.es erakunde publikoak 2020ko ekainean sinatutako «Educa en Digital» hitzarmeneko jarduketak zabalitzen dira. Programak politika autonomikoak osatzen ditu, ikastetxeetan irakaskuntzako eta ikaskuntzako baliabide digitalak hobetzeko, eten digitala murrizteko eta ikasleen gaitasunen garapena teknologien laguntzarekin hobetzeko.

#EcoDigEdu programaren helburu orokorra ikastetxeetako irakasleei eta ikasleei baliabide digitalerako sarbidea erraztea da, bai hezkuntza jarduera garatzeko bai irakasleak baliabide digitalen erabileran gaitzeko.

¹ Hezkuntzako Estatu Idazkaritzaren 2024ko irailaren 5eko Ebazpenak Konferentzia Sektorialaren Akordioa aldatu zuen, eta 2025eko abenduaren 31ra arte luzatu zuen gauzatze epea.

Programa hiru jarduketatan banatzen da, eta honako helburu hauek ditu Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarako:



Jarduketa bakoitzerako, mugari eta helburu kritiko batzuk ezarri dira, Nafarroako Foru Komunitateak 2025eko abenduaren 31rako lortu beharrekoak. Honako hauek dira:

1. taula: #EcoDigEdu programarako ezarritako mugari eta helburu kritikoak

Jarduketa	Programa guztira		Nafarroa	
	Zenbakia	Zenbatekoa guztira	Zenbakia	Zenbatekoa guztira
Gailu eramangarriak	300.000	149.238.000	3.436	1.709.503
Ikasgela digitalak	240.240	821.000.000	3.623	12.221.332
Gaitutako zentroak	18.342	18.947.000	311	282.043
Guztira		989.185.000		14.212.880

Iturria: Guk geuk egina, Konferentzia Sektorialaren Akordioan oinarrituta.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsekin finantzaturako programa denez, mugari eta helburu kritikoak betetzearen mende dago baliabideak jasotzea. Betetzen ez badira, Nafarroako Foru Komunitateak baliabideok itzuli beharko ditu.

Konferentzia Sektorialaren Akordioak mugari eta helburu ez-kritikoak finkatu zituen. Horiek ez dira nahitaez bete beharrekoak autonomia-erkidegoentzat, nahiz eta jarraibide gisa ezarri ziren, martxan jarritako jarduketaren aurrerapen-maila neurtzeko. Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, honako hauek definitu ziren:

2. taula: Nafarroako Foru Komunitatearen mugari eta helburu ez-kritikoak

Jarduketa	31-mar-23	31-mar-24	31-mar-25
1.- Gailu eramangarriak	1.134	2.268	3.436
2.- Ikasgela digitalak	1.196	2.391	3.623
3.- Gaikuntza eta euskarria: zentro-kopurua	0	156	311

Iturria: Guk geuk egina, Konferentzia Sektorialaren Akordioan oinarrituta.

CoFFEE informazio-sistema eta MINERVA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren informazio-, kudeaketa- eta jarraipen-sistema da CoFFEE-SEM, neurrien eta proiektuen, mugarren eta helburuen, eta proiektuekin lotura duten gastuen kontabilitate- eta aurrekontu-betearazpenaren jarraipena egiten duena. Ministerioen, autonomia-erkidegoen, udalen eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren jarduketak kudeatzen eta betearazten dituzten beste erakunde batzuen informazioa biltzen du. Plataforma Ogasun Ministerioaren mende dago.

Irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak, zeinaren bidez ezartzen baita informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek, segimendua egite aldera Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugarren eta helburuen betetze-mailaz eta plan horren osagaien eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaz, ezartzen du autonomia-erkidegoak behartuta egonen direla proiektuen jarraipena egiteko emandako datuen baliotasun, fidagarritasun eta trazabilitatea bermatuko duten barne-kontrol-eko sistemak edukitzera.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioiko Europako Funtzen Idazkaritza Nagusiak etengabe garatzen du CoFFEE-SEM informazio-sistema. Sistema horren azken bertsioa 23. bertsioa da (2025eko otsaila).

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa aplikazio informatiko propio bat garatzen ari zen CoFFEE aplikazioaren egitura aintzat hartuta, azpiproiektuen informazio guztia biltzeko eta automatikoki CoFFEE aplikaziora irauli ahal izateko. Aldiz, nafar aplikazio informatiko propio hori geldirik dago uneotan, CoFFEE aplikazioa ez baitago guztiz amaituta. Era berean, Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusiak adierazi digunez, gaur egun CoFFEE aplikazioaren zerbitzu elektronikoak ez dira behar bezala funtzionatzen ari, eta informazioa ematea eta bideratzea eragozten dute.

MINERVA aplikazioa, berriz, interes-gatazkak aztertzeko Zerga Agentziak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren parte hartzen duten erakunde erabakitzailerak, erakunde betearazle eta erakunde instrumentalen eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko kontrol-organo eskudunen eskura jartzen duen tresna informatiko bat da.

CoFFEE eta MINERVA aplikazioak estuki lotuta dauden tresnak dira. MINERVA aplikaziora sartzeko, beharrezkoa da CoFFEE aplikazioan sortu eta baimendutako eragiketaren erreferentzia-kodea erabiltzea.

III. HELBURUAK ETA IRISMENA

Hezkuntza sistemaren digitalizazio programa (#EcoDigEdu programa) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan nola inplementatu den ebaluatzeko, fiskalizazio operatiboko lanak egin ditugu. Fiskalizazio horren helburuak honako lau galderetan zehazten dira:

1. Plangintzaren xedea #EcoDigEdu programaren baldintzak betetzea izan da?

2. Hezkuntza Departamentuak gauzatu dituen #EcoDigEdu programaren kontratazio-jarduketak bat datoz programaren baldintzekin eta helburuarekin, eta lortu nahi diren helburuak lortzen laguntzen dute?

3. #EcoDigEdu programako jarduketan eta jarduketei lotutako funtsen jarraipena eta kontrola egiteko sistema egokirik ezarri al da?

4. Ekipamendua hornitzeko jarduketekin batera, hartzen al dira ekipamendu horrek arrakala digitala murrizten eta hezkuntza-sistema digitalizatzen benetan lagun dezan beharrezkoak diren neurriak?

Helburu bakoitzerako, honako azpigelburu eta irizpide hauek zehaztu dira:

1. helburua. *Plangintzaren xedea #EcoDigEdu programaren baldintzak betetzea izan da?*

Azpigelburuak	Irizpideak
1.1 Plangintza estrategikoko instrumentuak landu al dira kudeaketarako?	<ul style="list-style-type: none"> – Onartutako instrumentuak: zein mailatan landu den, edukia, unitatea eta onespene-data. – Dokumentuon aurreikuspenen betetzea.
1.2 Programa inplementatzeko aurreriazko diseinu- eta plangintza-prozesurik egin al da?	<ul style="list-style-type: none"> – Beharren kuantifikazioa eta diagnostikoa. – Beharren arabera plangintza. – Hornitu beharreko zentroak hautatzeko irizpideak. – Ikasleen kalteberatasuna zehazteko irizpideak. – Programaren baldintzen eta eskakizunen arabera diseinua eta irizpideak.

2. helburua. *Hezkuntza Departamentuak gauzatu dituen #EcoDigEdu programaren kontratazio-jarduketak bat datoz programaren baldintzekin eta helburuarekin, eta lortu nahi diren helburuak lortzen laguntzen dute?*

Azpigelburuak	Irizpideak
2.1. Nola eta zenbat bete da programa?	<ul style="list-style-type: none"> – Erabilitako instrumentu juridikoak eta bete beharreko programako ekintzekiko koherentzia. – Programa betetzeko erabilitako instrumentu juridikoen izapidetze-egoera. – Betetze-maila 2024ko abenduaren 31n.
2.2. Nola banatu dira gailuak zentroetan?	<ul style="list-style-type: none"> – Antzemandako beharren arabera. – Beste banaketa-irizpide batzuk erabilia.

3. helburua. #EcoDigEdu programako jarduketan eta jarduketei lotutako funtsen jarraipena eta kontrola egiteko sistema egokirik ezarri al da?

Azpihelburuak	Irizpideak
3.1. Nola egiten da jarraipena?	<ul style="list-style-type: none"> – Nork eta nola egiten du jarraipena? – Aurrerapen-maila, tarteko helburuak betetzean. – Mugarri eta helburu kritikoen ez-betetze arriskuak.
3.2. Zer kontrol-jarduketa egin dira?	<ul style="list-style-type: none"> – Ziurtatutako helburuen justifikazioa. – Ziurtatutako geletako gailuen eta ekipamenduen identifikazioa.² – Gastuaren eta finantzaketaren aurrekontu- eta kontabilitate-kontrola.

4. helburua. Ekipamendua hornitzeko jarduketekin batera, hartzen al dira ekipamendu horrek arrakala digitala murrizten eta hezkuntza-sistema digitalizatzen benetan lagun dezan beharrezkoak diren neurriak?

Azpihelburuak	Irizpideak
4.1. Zer neurri hartu dira ekipamendu-horniduren eraginkortasuna lortzeko?	<ul style="list-style-type: none"> – Ekipamenduak inbentarioaren bidez kontrolatzea. – Ekipamendua martxan jartzea. – Ikasle kalteberei ekipamendua ematea. – Inplementazio-faseak ikastetxeetan bertan koordinatzea. – Ekipamenduaren gaineko laguntza informatikoa eskaintzea. – Gailuen eta zentroyen konektibitatea bermatzea. – Inbertsioak epe ertainean eta luzean jasagarriak izatea bermatzea.

Programa betearazteaz arduratzen den unitatea den aldetik, fiskalizazio lanaren eremu subjektiboa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren Hezkuntza Departamentua da. Era berean, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren mende dauden ikastetxe publikoetara ere hedatzen da. Departamentuak itunpeko ikastetxeetan #EcoDigEdu programa ez ezartzea erabaki zuen.

Eremu objektiboa, berriz, #EcoDigEdu programaren hiru jarduketek osatzen dute:

- 1. jarduketa: gailu eramangarriak hornitzea.
- 2. jarduketa: ikasgela digital interaktiboak instalatzea eta mantentzea.
- 3. jarduketa: irakasleak gaitzea.

Fiskalizazio lanaren denbora-tartea 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitarteko aldia da, baina horrek ez du eragotzi beharrezkotzat jotako aurreko eta ondoko aldiei buruzko egiaztapenak ere egitea programatutako helburuak betetzeko.

² Helburuak betetzen direla frogatzeko, CoFFEE aplikazioan ziurtatu behar dira adierazleak.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

IV.I KONKLUSIOAK

Jarraian, fiskalizazio-helburu bakoitzarekin lotuta ateratako ondorioak azalduko ditugu.

Programa inplementatzeko plangintza

Departamentuak ministerioak esleitu eta finantzatu zion ekipamendu teknologiko guztia erosi zuen «Next Generation EU» funtsetatik eskuratutako 14,21 milioi euro baliatuta; zehazki, 3.442 gailu eramangarri eta 4.568 ikasgela digitalizatzeko 1.500 panel eta 4.600 OPS. Ekipamendu hori ikastetxe publikoetara bideratu zen oso-osorik; ez da itunpeko ikastetxeetan banatu.

Ekipamendu teknologikoa ikastetxeen artean banatzeko plangintza oinarritu zen inbentarioak kudeatzeko GLPI aplikazioan eskuragarri dagoen informazio xehatuan. Horrek aukera ematen du denbora errealean ezagutzeko zein den ikastetxe publiko bakoitzean dagoen zuzkidura eta zer bilakaera historiko izan duen.

Hori dela-eta, departamentuak ez zuen zentro hartzaileen zerrenda izendunik egin ekipamendu teknologikoa erosi aurretik, eta ez zuen ekipamenduaren banaketa zehaztu, inbentario eguneratuak eta EDUCAko erreferentziazko taldeen ezagutzak aukera ematen baitzuten arin eta benetako beharretan oinarrituta diseinatzeko zer ekipamendu bolumen behar zen ikastetxeetan, bai eta beharrezko doikuntzak egiteko ere, programa garatu bitartean.

Departamentuak zehaztu egin zituen erosi beharreko gailu mugikorren ezaugarriak eta mota, eta ikasgela digitalen ekipamenduari buruzko irizpideak ere ezarri zituen, txosten honen 2. gehigarrian ikus daitekeen bezala.

Nabarmenezkoa da #EcoDigEdu programa hezkuntzako gaitasun digitalak hobetzeko #Comp-DigEdu programarekin batera planifikatu zela, ekipamendu digitala martxan jartzeko prozesua ikastetxeko plan digitalarekin eta irakasleen gaitasun digitalekin koordinatzeko.

Kontratua exekutatzea

Programako jarduketak ez ziren gauzatu Konferentzia Sektorialaren Akordioan helburu ez-kritikoentzat ezarritako faseetan; aitzitik, 2024an kontratatu ziren guztiak, helburu hartuta urte horretan instalatzea Nafarroako Foru Komunitateari esleitutako zuzkidura teknologiko guztiak. Programaren inplementazioa ez mailakatzeko erabaki hori honako arrazoi teknikoetan oinarritu zen, besteak beste:

- Teknologia berriaren erostea denboran bat etorraraztea jadanik badauden ekipoen bizi-zikloarekin.

- Ikastetxe publikoetan erabiltzen diren tresnen eta plataformen heterogeneotasuna saihestea.

Oro har, programaren jarduketan bi kontratazio-espeditenteen tramitazioa araudiaren arabera izan zen (gailu eramangarriak eta ikasgela digitalak). Hori bai, adjudikaziodunek bi kontratuetako bakar batean ere ez zituzten aurkeztu azpikontratutako enpresei zegokienez kontratazioaren araudiak eta agiri erregulatzailerek eskatutako dokumentu guztiak, eta aurkeztutako dokumentuetako batzuk inkoherenteak dira. Ez dago jasota Kontratazio Mahaiak lizitatzailak ohartarazi zituen aurkeztutako dokumentazioa zuzen zezaten.

Gailu eramangarriak ikastetxeetan entregatzeko epea 2024ko azaroaren 25ean amaitzen zen. Aldiz, 2024ko abenduaren 31n, gailuak azpikontratutako enpresan biltegitatuta zeuden oraindik, zentroetara banatu gabe; nagusiki departamentuari egotz dakizkiokeen arazo teknikoengatik gertatu zen, behin betiko hedapena egin aurretik ekipoen konfigurazioa berrikusi eta doitu behar izan baitzen.

Ikastetxe bakoitzak jaso beharreko gailu kopurua zehazteko, irizpide hauek hartu ziren aintzat: ikastetxe bakoitzean aurretik erabilgarri zeuden gailu mugikorren kopurua, ikastetxearen beharrak, hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleen eskolatzeko indizea eta pobrezia-tasa.

Ikasgelak digitalizatzeko ekipamendua 10,54 milioiko prezioan esleitu zen, lizitazio-prezioa baino % 15,69 merkeago (1.962.163 euro gutxiago). Adjudikazio-irizpide gisa baloratu zen adjudikaziodunak hornidura gehigarria onartzeko konpromisoa hartzea prezioaren jaitsieragatik, alde aurretik kontratua aldatuta. 2024ko abenduaren 31n, aurreztutako funts horiek ez ziren birbanatu beste ekipamendu batzuk edo ekipamendu bereko unitate gehiago erosteko.

Ikastetxe publikoetan ikasgelak digitalizatzeko epea lau hilabetekoa zen kontratua formalizatzen zen unetik; hau da, 2024ko urriaren 26ra artekoa. 2024ko abenduaren 31n, erositako OPS guztiak instalatuta zeuden; aldiz, erositako 1.500 panel interaktiboen % 17 instalatu gabe zeuden oraindik.

2024ko abenduaren 31n, ikastetxeetan ez zen oraindik hornitutako ekipamenduaren erabilera-aren gaineko prestakuntza teknikorik eman, eta, hortaz, ez zen bete ezarritako zortzi asteko epea (ikastetxeek ekipamendua jasotako unetik kontaktzen hasita). Prestakuntza emateko egutegi bat dago 250 ikastetxeetatik 77tan, 2025eko otsailetik aurrera zehazki.

Kontratu-exekuzioaren eta ekipamendu-banaketaren jarraipena eta kontrola

Ezin izan dugu egiaztatu nola egiten ari den gailu eramangarrien ezarpenaren jarraipena eta kontrola, zeren eta, adierazi bezala, 2024ko abenduaren 31n banatu gabe baitziren oraindik.

Ikasgelak digitalizatzeko ekipamenduari dagokionez, adjudikaziodunak inplementazio plan bat aurkeztu zuen, non proiektuaren jarraipenerako metodologia jasotzen den. Lagin batean egiaztatu dugunez, adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko lanak gainbegiratu, ikuskatu eta kontrolatzeaz arduratzen den Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzuari entregatu zizkion ikastetxean instalatutako ekipamenduaren albaranak eta instalazioaren ebidentzia grafikoak.

2024ko abenduaren 31n, 4.568 ikasgela digital zeuden jadanik eratuta –hasiera batean 3.623 zeuden aurreikusita–. Ikasgela digital guztietatik, 1.500 sortu berriak dira, eta 3.068, berriz, eskuratutako OPS berriak gehituta eratu dira.

2024ko abenduaren 31n, ikastetxeei eman beharreko prestakuntzaren hiru proba pilotu besterik ez zeuden eginda; horrenbestez, kontratuak prestakuntzaren emateari dagokionez ezarritako epea ez da bete.

2024ko abenduaren 31n, 12,25 milioi euroko gastua zegoen hitzemanda, baina programako jarduketak oraindik amaitu gabe zeudenez, ez zegoen inolako gasturik aitortuta edo ordainduta. Data horretan, aitortutako diru-sarrerak 14,21 milioi eurokoak ziren. Gure ustez, programa horri lotutako diru-sarreraren eta gastuen kontabilitate-jarraipena egiteko sistema egokia da, eta araudiak eskatzen dituen trazabilitateko eta auditoretza-arrastoko baldintzak betetzen ditu.

Arrakala digitala murrizteko eta hezkuntza-sistema digitalizatzeko ekipamendu-zuzkiduren eraginkortasuna lortzeko hartutako neurriak

Honako hauek dira eskuratutako ekipamenduak arrakala digitala murrizten eta hezkuntza-sistema digitalizatzen modu eraginkorrean laguntzeko departamentuak hartutako neurriei buruzko konklusio garrantzitsuenak:

- Ekipamendua inbentarioaren bidez kontrolatzea: departamentuak inbentario-sistema bat diseinatu eta inplementatu du, eskura izate aldera ekipamenduari buruzko informazioa; adibidez, ekipo-mota, eskuratze-data, antzinasuna, ekipoaren egoera (eskuragarri dagoen ala mailegatua dagoen eta abar), eta ekipo bakoitza une oro zer zentrotan dagoen³. Gure ustez, inplementatutako inbentario-sistema egokia da, nahiz eta aurrerantzean beste garapen batzuk egin behar zaizkion, identifikatu ahal izateko ekipoa zer ikasgelatan dagoen eta zein ikaslek erabiltzen duen, edo ekipoa azken hartzailearengana iritsi dela egiaztatzeko.

³GLPI aplikazioan.

- Departamentuak ikastetxeetan koordinatu ditu ikasgelak digitalizatzeko ekipamendua ezartzeko faseak, hezkuntzako gaitasun digitala hobetuz, eta, horretarako, kasuko tresna pedagogikoak eman dizkie irakasleei. Horrela, bada, #EcoDigEdu eta #ComDigEdu programak elkarrekin garatu dira. Planteamendu hori jarduketan plangintzatik bertatik gauzatu da, eta, hala, irakasle-talde bat izendatu da ikastetxeak koordinatzeko (Ikasnova aholkulariak).

- Dispositiboak zentrotik kanpo ere konektatu ahal izatea konpondu gabe dago oraindik, baina auzi horri gailu eramangarriak banatzean helduko zaio.

- Departamentuak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeei arreta emateko zerbitzua, gaur egun administrazioko ofizial teknikoek ematen dutena Erabiltzaileen Arretarako Zentroaren bidez, ez da nahikoa 250 ikastetxe publiko baino gehiagori erantzuteko eta laguntza informatikoa emateko. Ildo horretan, kontuan hartu behar da ikastetxeotan 20.000 ekipo baino gehiago (eramangarriak eta mahai gainekoak) eta 50.000 Chrome-Book gailu baino gehiago daudela, eta bestelako teknologia batzuk ere ezarrita daudela, panel interaktiboak, kamerak eta konektibitate-elementuak kasu.

- Gailu eramangarriak ikastetxe publikoen artean banatzeko irizpideen artean, Konferentzia Sektorialaren Akordioan ezarritakoekin bat datozen ikasleen kalteberatasun-faktoreak hartu dira kontuan. Hala ere, ez da ezarri ikastetxeek gailuak ikasle zaurgarriei emanen dizkietela ziurtatzen duen mekanismorik.

- Ez da aurreikusi nola berrmatuko den inbertsioen jasagarritasuna epe ertain eta luzera. Departamentuaren txosten batean adierazten den bezala, digitalizazioan egindako inbertsioek hezkuntzaren kalitatea berrmatzeko funtsezkoak diren zenbait erronka planteatzen dituzte, hala nola ekipoen zaharkitzea, ekipoen degradazioa eta ekipoen berritzea planifikatzeko beharra. Txosten horretan adierazten da, halaber, teknologian inbertitzeak funtsezko beste elementu batzuk ere jaso behar dituela, hala nola segurtasuna, ikasgelaren kontrola eta ikaskuntza-ingurune birtualen kudeaketa eraginkorra.

Azken batean, departamentuak 2024an erosi zuen ministerioak zehaztu eta Europako funtsetatik heldutako 14,21 milioi eurekin finantzatu zuen ekipamendu digitala. Inbertsio digital horiek ikastetxe publikoetara bideratu dira, eta osatuko dute ikastetxeek Hezkuntza Departamentuak 2017-2018 ikasturtean abian jarritako Ikasnova hezkuntza-digitalizazioko planari esker dagoeneko bazuten parke teknologiko zabala.

#EcoDigEdu programaren jarduketak Ikasnova programaren hezkuntza digitalizatzeko estrategiarekin uztartu eta koordinatu dira.

Nabarmentzekoa da 2017-2024 aldian Ikasnova programaren esparruan egindako inbertsio globala, sare publikoko ikastetxeak digitalizatzekoa. Aldi horretan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 37 milioi inbertitu zituen ekipamendu teknologikoan, Nafarroa digitalizazio-maila handieneko erkidegoetako bat bilakatuz, 2. eranskineko adierazleetan ikus daitekeen bezala. Hala, Nafarroako Foru Komunitatean, 2022-2023 ikasturtean, ordenagailu bakoitzeko ikasle bat zegoen batez beste, Estatuko batez bestekoa bi ikaslekoa zenean. Are, ikastetxe publikoetako gelen % 69,5ek sistema digital interaktiboak zituzten Nafarroan, Estatuko batez bestekoa % 63koa zenean.

Kontuen Ganbera honen ustez, oro har, Hezkuntza Departamentuak #EcoDigEdu programarekin lotuta egin dituen jarduketak egokiak dira jasotako Europako funtsak helburu aurreikusiak betetzeko behar bezala erabili direla ziurtatzeko.

Hala ere, 2024ko abenduaren 31n, #EcoDigEdu programa ez zegoen oraindik osorik inplementatuta. Data horretan, gailuak zentroi bati banatu gabe zeuden, panel interaktiboek % 17 instalatu gabe zeuden eta gaikuntza teknikoari buruzko prestakuntza eman gabe zegoen. Beraz, 2021ean 14,21 milioi euroko diru-sarrerak jaso baziren ere, oraindik ere ez zegoen inolako gasturik aitortuta.

Hau da, 2024ko abenduaren 31n ez zegoen ziurtatuta #EcoDigEdu programaren hiru jarduketako bakar batean ere bete zirenik jarritako helburuak. Ildo horretan, aintzat hartu behar da departamentuak mugari eta helburu kritikoak epe ezarrian bete behar dituela, hau da, 2025eko abenduaren 31n; eta ministerioaren aurrean 2026ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu behar dituela.

Azkenik, ez dugu alde batera uzterik hezkuntzan gailu teknologikoak erabiltzeari eta adingabeek gailuok erabiltzeak dakartzan arriskuei buruzko eztabaida soziala. Horren erakusle, Hezkuntza Departamentuak Ikasnova Hezkuntza Digitalizatzeko Plana garatu du, digitalizazio arduratsu eta segurua funtsezko printzipio gisa ezartzen duena. Ikuspegi hori bat dator gazteentzako eta haurrentzako ingurune digital segurua garatzeko adituen batzordeak 2024an egindako txostenarekin, zeinak defendatzen baitu kompetentzia digitalak eskola ingurunean integratzea, digitalki gaitutako irakasleekin eta gune babestu gisa.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren 2021-2025 aldirako inklusio eta gaikuntza digitalerako planak helburu estrategiko gisa ezartzen du tresna eta plataforma digitalen erabilera arduratsua eta segurua sustatzea.

IV.II GOMENDIOAK

Gure fiskalizazio-lanaren konklusioak aintzat hartuta, honako gomendioak egiten ditugu:

- *Ikastetxeen zuzkidura teknologikoen egoera urtero aztertzea eta baliabide teknologikoekin, langileekin eta finantzaketarekin lotuta dauden beharrak ebaluatzea, ekipamendu teknologikoa berritzeko eta ordezteko plangintza egiteko.*
- *Gailu eramangarriak mailegatzeko prozedura definitzea eta ezartzea, ikasle zaurgarrienei lehentasuna emanez.*
- *Ikasgela digitaletan instalatutako ekipamenduaren erabilerari eta funtzionamenduari buruzko presakuntza teknikoa ematea ikastetxe guztietan.*
- *Ikastetxeetako ekipamendu teknologikoen mantentze-lanetarako eta beharrezko laguntza emateko behar adina teknikari jartzea.*
- *Zuzkidura teknologikoak irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuan integratzearen eraginkortasuna eta efikazia aztertzea eta ebaluatzea, baita arrakala digitala murrizteko egiten duen ekarpena ere, batez ere ikasle zaurgarrienen artean.*
- *Inbentarioak kudeatzeko aplikazio informatikoa garatzen jarraitzea, helburu hartuta ikastetxeetako ikasgeletako ekipamendu teknologikoa eta ikasleei utzitakoa ezagutzea, kudeatzea eta kontrolatzea.*

V. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA

Hezkuntza Departamentua da «#EcoDigEdu programa» izeneko azpiproiektua gauzatzearen arduraduna. Bermatu behar du egindako kudeaketako jarduketak eta eragiketak bat datozela aplikatzeakoak diren arauekin, eta behar diren mekanismoak ezarri behar ditu proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta helburuok lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezen, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezarrita.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusiak du ardura Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasota dauden jarduketak koordinatzeaz, haien gaineko erantzukizuna Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoena edo menpeko entitateena denean.

VI. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da konklusio batzuk adieraztea, oinarri harturik egin dugun fiskalizazioan, hezkuntza sistemaren digitalizazio programa (#EcoDigEdu programa) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan inplementatzeari buruzkoan.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako fiskalizazio-printzipio orokorren arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak; eta, batez ere, fiskalizazio operatiboari buruzko ISSAI-ES 300 delakoa aplikatu dugu, bai eta ISSAI-ES 3000n eta 3100ean jasotako jarraibideak ere. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako ondorioak oinarrituko dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria jasotzen du ateratako konklusioei funtsa emateko.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditoreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2025eko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

#EcoDigEdu Programari aplikatu dakiokkeen oinarritzko esparru arauemailea honako hau da:

Europako eta estatuko araudia

- Ebazpena, 2021eko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako Estatuko Idazkaritzarena, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2021eko uztailaren 21eko Akordioa argitaratzen duena. Akordio horren bidez, autonomia-erkidegoek kudeatutako #EcoDigEdu programara bideratutako kredituak banatzeko lurralde banaketaren proposamena eta irizpideak onartzen dira 2021eko aurrekontu-ekitaldian, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren «Gaitasun Digitalen Plan Nazionala» 19. osagaiaren esparruan.

- 47/2003 Legea, azaroaren 26koa, Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

- 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

- 2020/2094 Erregelamendua (EB), Kontseiluarena, 2020ko abenduaren 4koa, zeinaren bidez ezartzen baita Europar Batasuna Suspertzeko tresna bat, COVID-19aren krisiaren ondorengo suspertzeari bultzada emateko.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena (SEMen araudia).

- 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, presako neurriak onartzen dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko, bai eta, aipatu araua garatzeko, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kudeaketari buruz emandako araudi autonomikoa ere.

- Ebazpena, 2021eko apirilaren 29koa, Ekonomia Aferetarako eta Eraldaketa Digitalerako Idazkariordeztzarena, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana onartu zuen Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakia argitaratzen duena.

- Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko finantzaketa akordioa, Batzordearen eta Espainiaren artekoa, 2021eko abuztuaren 6koa.

- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.

- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baita informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek, jarraipena egiteko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugarren eta helburuen betetze-mailarena eta planeko osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenarena.

- 1/2022 Ebazpena, apirilaren 12koa, Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiarena, jarraibideak ezartzen dituen argibideak emateko erakunde betearazle izaeraren, neurrien arduradun diren organoen izendapenaren eta proiektuak eta azpiproiektuak kudeatzen dituzten organoen gainean, betiere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistemaren esparruan.

- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretako interes-gatazka arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa.

Foru araudia

- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.

- 4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Europako Suspertze Tresnatik datozen europar funtsen bidez finantzatzeko ahal diren jarduketak kudeatzeko eta exekutatzeko.

2. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREKIN LOTUTAKO OHARRAK ETA AURKIKUNTZAK

Gehigarri honetan fiskalizazioaren azpigelburuekin lotuta iritsitako konklusioen garapena jaso dugu.

Programako jarduketan betetze-maila 2024ko abenduaren 31n

Jarduketan betetze-maila, 2024ko abenduaren 31n, honako hau zen:

3. taula: Programako jarduketan betetze-maila 2024ko abenduaren 31n

1. jarduketa	Mugarri eta helburu kritikoa	Erositako gailu kopurua	Banaturako gailu kopurua	Ziurtatutako gailu kopurua	Betetze-maila
Gailu eramangarriak	3.436	3.442	0	0	% 0

2. jarduketa	Mugarri eta helburu kritikoa	Erositako panel kop.	Erositako OPS kop.	Digitalizatutako ikasgela kop.	Ziurtatutako ikasgela kop.	Betetze-maila
Ikasgela digitalak	3.623	1.500	4.600	4.568	0	% 0

3. jarduketa	Mugarri eta helburu kritikoa	Prestakuntza planifikatuta duten ikastetxeen kop.	Prestakuntza dagoen eman duten ikastetxeen kop.	Ziurtatutako prestakuntzen kop.	Betetze-maila
Gaikuntza eta laguntza: ikastetxe kopurua	311	77	0	0	% 0

Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza Departamentuak INTEFera bidalitako datuak oinarri hartuta⁴.

2024ko abenduaren 31n, programako jarduketa guztiak esleituta zeuden, aintzat hartuta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari esleitutako ekipamendu teknologiko guztia. Mugarri eta helburu kritikoa 2025eko abenduaren 31rako bete behar dira, hori baita ministerioak ezarritako data.

Jarduketa horien aurrekontu-betetzea, 2024ko abenduaren 31n, honakoa zen Nafarroako Foru Komunitatean:

4. taula: Aurrekontuaren betetzea 2024ko abenduaren 31n

Jarduketa	Diru-sarrerak	Gastuak	
		Hitzemandako gastua	Betebehar onartuak
1.- Gailu eramangarriak	1.709.503	1.709.503	0
2.- Ikasgela digitalak	12.221.332	10.259.168	0
3.- Gaikuntza	282.043	282.043	0
Guztira	14.212.878	12.250.714	0

Iturria: Guk geuk egina, SAPG21 datuak oinarri hartuta.

⁴Hezkuntza Teknologien eta Irakasleen Trebakuntzaren Institutu Nazionala.

1. helburua. Plangintzaren xedea #EcoDigEdu programaren baldintzak betetzea izan da?

Programa kudeatzeko plangintza estrategikoko tresnak landu diren aztertu dugu, baita programa ezartzeko alde zuzeneko diseinua eta plangintza ere.

Plangintza estrategikoko tresnak

Nafarroako Gobernuak 2022ko otsailaren 16an onetsi zituen «Suspertze eta Erresilientzia Mechanismoak finantzatutako proiektuak kudeatzeko eta kontrolatzeko arauak», Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren azpiproiektu bakoitzarentzat kudeaketa-plan bat egitea aurreikusten dutenak.

Departamentuak 2022ko maiatzaren 26an onartu zuen #EcoDigEdu programaren (ekipamendua) eta #CompDigEdu programaren (eskumena) kudeaketa-plana, Ikasnova Hezkuntza Digitalizatzeko Plana izenpean.

Kudeaketa-planaren edukiak araudian ezarritako dokumentu hauek biltzen ditu: programaren gastuen zerbatespena, departamentuaren helburuak eta jarduketak, azpiproiektuaren memoria, ingurumen-arriskuaren azterketa, aurrekontu-plan ekonomikoa, eta kudeaketako arauen eta prozeduren gidaliburua.

Kudeaketa-planean aurreikusitako gailu mugikorren zuzkidurak, ikasgela digitalen hornikuntza eta ikastetxeetako gaikuntza Konferentzia Sektorialaren Akordioan ezarritako helburu ez-kritikoekin bat datoz.

2024ko otsailean kudeaketa-planaren aurreikuspenak aldatuak izan ziren, eta, ondorioz, #EcoDigEdu programaren jarduketak birprogramatu ziren, guztiak 2024an inplementatzeko helburuarekin.

Birprogramazio horren arrazoia izan zen, Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzuaren zuzendariaren txosten baten arabera, programaren inplementazioa faseka mailakatzea operatiboki konplexua dela, eta produktuak hornitzaile desberdinei erosteak edo belaunaldi teknologiko desberdinetako produktuak eskuratzeak tresnen eta plataformen heterogeneotasuna eraginen lukeela, integrazio teknikoa, mantentze-lanak eta irakasleen gaikuntza zaildurik. Departamentuak programa 2024an gauzatzeko beste arrazoi bat izan zen teknologia berriaren erosketaren lehendik zeuden ekipoen balio-bizitzara denbora-aldetik egokitzea.

Programa inplementatzeko diseinua eta plangintza

Departamentuak #EcoDigEdu programaren hiru jarduketak ikastetxeetan inplementatzeko egindako plangintza aztertu dugu: gailu eramangarriak, ikasgelen digitalizazioa eta eskuratutako ekipamenduaren buruzko gaikuntza teknikoa.

1. jarduketaren plangintza: gailu eramangarriak

Konferentzia Sektorialaren Akordioan 1,71 milioi esleitu zitzaizkion Nafarroako Foru Komunitateari 3.436 gailu eramangarri erosteko, ikasleen artean arrakala digitala murriztekoak.

Gailuok ikastetxe publikoei emanen zaizkie Nafarroan, eta, ondoren, ikastetxeek ikasleei utziko dizkiete zuzenean erabil ditzaten, bai ikasgelan, bai ikasgelatik kanpo.

Gailu mugikorren lizitazio espedientearen beharren txostenean adierazten denez, 2020-2021 ikasturteetik, sare publikoko Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Batxilergoko 2. mailara bitarteko ikasle guztiak behar bezala ekipatuta egon dira 1:1 eredu jarraituz; ildo horretan, aintzat hartu behar da COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak erraztu egin zuela ikasle bakoitzak gailu bat izatea.

Txosten horretan eta kontratazioaren baldintza-agirian adierazten denez, departamentuak gailu eramangarrien erosketaren atzeratzea erabaki zuen, zuzkidura berriaren eta pandemian zehar banatutako gailuen aldibereko zaharkitzea saihesteko. Era berean, konektibitate behar erreala berretulatu erabaki zuen, bereziki egoera zaurgarrian dauden eta ikastetxetik kanpo konektibitate ez duten ikasleen egoera aintzat hartu eta urgentziaz eta nahitaz konpontzeko.

Konektibitate behar errealak berrebaluatu izanaren gaineko informaziorik edo daturik ez dago, ez beharren txostenean ez baldintza-agirian.

Departamentuak adierazi duenez, 2023an ezarritako departamentuaren Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuaren «Mentoreak» programari esker⁵, ikasle zaugarrien konektibitate beharrei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabide digitalak identifikatu ahal izan ziren.

Honako irizpide hauek hartu zituen kontuan departamentuak, erosi beharreko gailu mugikor mota eta gailuon ezaugarriak zehazteko:

- Ikastetxetik kanpo konektibitatea modu seguruan eta berehalakoan ahalbidetzen duten gailuak.
- Datu mugikorrek kudeatzeko plataforma bat ezartzea konektibitatea era zentralizatuan administratzeko eta konektibitateko sarbidea kontrolatzeko; datu-kuotak administratzea eta erabilpena denbora errealean monitorizatzea, departamentuaren informazio-sistemen osotasuna eta ikasleen pribatutasuna eta segurtasuna babesteko; eta neurri zuzentzaileak ezartzea, erabilpen desegokirik edo baimendu gabeko sarbide-saiakerarik antzemanaz gero.
- Operadorearen konektibitatea kontratuan ez zuzenean sartzea, erabilitako konektibitatea kontrolatu eta gainbegiratze aldera eta konektibitate-kontratuak gailuen beharretara eta erabilera errealerara egokitzeko, erabili ez diren lineengatik behin eta berriro ordaindu behar izatea saihesteko.

2. jarduketaren plangintza: ikasgela digitalak

Departamentuak 12,22 milioi euro jaso zituen 2021ean «Next Generation EU» funtsetatik, ikastetxe publikoetan 3.623 ikasgela digital instalatzeko; zehazki, ikasgeletan sistema digital interaktiboak ez zituzten ikastetxeak edo sistemok osatu beharrean ziren ikastetxeetan.

Konferentzia Sektorialaren Akordioan ezartzen zenez, ikasgela guztiek, arau orokor gisa, gutxienez panel interaktibo bat eta ordenagailu/dockstation bat izan behar dituzte.

Era berean, xedatu zen ezen ikasgela digitalak sortzeko bi modu zeudela:

- Ikasgela digital guztiz berriak sortzea.
- Lehendik zeuden ikasgelak digital bihurtzeko beharrezko elementuetakoren bat ezartzea haietan.


2017-2023 aldian 3.179 monitore interaktibo erosi zitzaizkien hornitzaile desberdinei, ikasgelak digitalizatzeko.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, monitore interaktiboen % 16k bost urtetik gorako antzintasuna zuten, eta % 58k bi eta lau urte artekoa. Horrek esan nahi du epe laburrean zaharrituta geratuko direla.⁶

⁵ Kalteberatasun-egoeran dauden adingabeentzako hezkuntza-errefortzuko programa, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat, talde txikitik kanpo egindako online tutoretza-saioen bidez.

⁶ Panel interaktibo baten balio-bizitza 20.000 eta 50.000 ordu artekoa da; hau da, bi eta sei urte artekoa.

Ikastetxe publikoetako monitoreen antzintasuna



Iturria: Guk geuk egina, GPLI datuak oinarri hartuta.

Honako irizpide hauek hartu zituen kontuan departamentuak, 2024an ikasgelak digitalizatzeko ekipamendua erosteko:

- Ikastetxeek zituzten panel interaktiboaren parkea homogeneizatzea, fabrikatzaile desberdinenak baitziren, eta, ondorioz, heterogeneoak.
- Erabiltzaile-esperientzia bateratzea, adjudikaziodun fabrikatzailearen softwarea erabilia.
- Ikasgela bakoitzeko ekipo guztien arteko elkarreragina lortzea (panela, ordenagailua, gailu mugikorra).
- Eskuratutako ekipoen zaharkitze-aldia kontrolatzea.
- OPSrik ez zuten panel digitaletan integratutako ordenagailu bat instalatzea.

Departamentuak erabaki zuen 2. jarduketaren onuradunak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoak izatea, lehentasuna emanez, inbentarioak kudeatzeko GLPI aplikazioan jasotako informazioa aintzat hartuta, aldez aurretik digitalizatu gabeko ikasgelak zituzten hezkuntza-etapei eta taldeei. GLPI aplikazioak ikastetxearen eta etaparen araberako beharrak identifikatzeko aukera ematen zuenez, ez zen aldez aurretik egin digitalizatu beharreko ikasgelen zerrenda itxirik.

3. jarduketaren plangintza: gaikuntza teknikoa

Gaikuntza teknikoko 3. jarduketaren plangintza 2024ko ekainean esleitu zen, eta 2025ean programatzen ari dira.

2. helburua. Hezkuntza Departamentuak gauzatu dituen #EcoDigEdu programaren kontratazio-jarduketak bat datoz programaren baldintzekin eta helburuarekin, eta lortu nahi diren helburuak lortzen laguntzen dute?

Departamentuak #EcoDigEdu programa zer neurritan gauzatu duen, zentroetan ekipamendua nola banatu den eta kontratuen lizitazio-espedientea izapidetzean legea bete den aztertu dugu.

Departamentuak erabaki zuen programaren jarduerak egitea ekipamendu teknologikoaren hornikuntza, banaketa eta instalazioa kanpoko hornitzaileekin kontratatuz, baita ondorengo irakasle-

prestakuntza teknikoa ere. Jarduketa horiek bi kontratutan antolatu dira, 2024ko ekitaldian zehar lizitatu eta adjudikatuak, esleituriko ekipamendu guztirako:

1- 3.440 gailu eramangarri eskuratzeko kontratua (1. jarduketa).

2- 1.500 panel digital, 4.600 ordenagailu integratu (OPS) eta 3.623 ikasgela digitalizatzeko beste ekipamendu batzuk (bistaragailuak eta kamerak) eskuratzeko kontratua (2. eta 3. jarduketak).

Hurrengo taulan, bi kontratuen adjudikazioari buruzko datuak jaso ditugu:

5. taula: Jarduketa bakoitzeko kontratuen adjudikazioa

Jarduketa	Lizitazio-prezioa	Adjudikazio-prezioa	Adjudikazioaren beherapen ehunekoa	Adjudikazioaren data	Zenbakia	Kontratuaren data	Exekuzio-epea
1 Gailu eramangarriak	1.709.503	1.709.503	0	2024/09/09	3.440	2024/09/25	2 hilabete
2 Ikasgela digitalak	12.503.375	10.541.212	15,69		3.623		
Panel digitalak	4.550.120	4.311.093	5	2024/06/04	1.500	2024/06/27	4 hilabete
OPS	7.162.501	5.704.245	20		4.600		
Bestelako ekipamendua	790.754	525.874	33		860		
3 Gaikuntza eta euskarria: Ikastetxe kopurua*				2024/06/04	311		8 aste

* Ikasgela digitalen kontratuko adjudikazio-irizpide gisa sartuta.

Iturria: Guk geuk egina, Gardentasunaren Atariko datuak oinarri hartuta.

Jarraian, bi kontratuak aztertu ondoren ateratako konklusio nagusiak azaltzen ditugu.


Hezkuntza Departamentuko ikastetxeei gailu mugikorrek hornitzea, #EcoDigEdu programaren «gailu eramangarriak» 1. jarduketa.

Kontratuaren xedea da hornitzea eSIM konektibitate integratua duten 3.440 gailu eta datu mugikorren konektibitateko datu-poltsak kudeatzeko plataforma bat. Inbertsio nagusiaz gain, kontratuak barne hartzen ditu softwarea, lizentziak, softwarearen konfigurazioa, ekipoen identifikazioa, instalazioa, laguntza eta hiru urteko bermea.

Kontratua 2024ko irailaren 9an adjudikatu zen sorta bakar gisa, 1,71 milioi euroko prezioan; hau da, lizitazio-prezioan. Kontratuak honako hauek hornitzea ezartzen du:

1. jarduketaren bidez eskuratutako elementuak

Iturria: Guk geuk egina, Gardentasunaren Atariko datuak oinarri hartuta.



Bi lizitazaile aurkeztu ziren.

Kontratuaren exekuzioaren azpikontratazioari dagokionez, adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu zuen, non adierazten duen bi enpresarekin azpikontratatuak zuela, kontratuaren exekuzioaren % 25,95 guztira.

Adjudikaziodunak ez zuen adierazitako enpresa horietako bakar batekin ere azpikontratatzeko konpromiso formalik aurkeztu, baldintza-agirian ezarritakoaren kontra. «Minervan geroagoko kontsultak egitea errazteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena» izeneko dokumentu bat aurkeztu zuen, eta bertan adierazten zuen beste enpresa batekin azpikontratatu zituela bai ekipamendurako euskarri- eta mantentze-plana bai «Azpikontratazio-konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena» izeneko beste dokumentu bat, non adierazten baitzuen aurreko dokumentuan adierazitako enpresa berarekin azpikontratatu zituela «proiektuaren kudeaketa, eragiketa, euskarria, ekipamenduaren mantentzea eta abar».

Dokumentu horretan, enpresa azpikontratatista adierazi zuen konpromisoa hartzen zuela, kontratua exekutatzea adjudikazioduna izan ez zen beste enpresa lizitatuak aurkeztutako baldintza-agiriari eta eskaintzari jarraikiz, eta azpikontratatista berarekin azpikontratatu zuela ikasgelen digitalizazioa.

Dokumentu batean ere ez da adierazten azpikontratatuak ehunekoa, baina ez du gaitzuko kontratuaren balio zenbatetsiaren % 50.

Hala ere, 2025eko otsailaren 11n, «Azpikontratazio-konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena» dokumentua bidali ziguten, non adjudikaziodunak adierazten duen «proiektuaren kudeaketa, eragiketa, laguntza, ekipamenduaren mantentzea eta beste» % 4,65ean azpikontratatu zituela, eta adierazitako akatsa zuzentzen den.

• 2024ko abenduaren 31n, erositako 3.442 gailu eramangarrien banaketari buruzko dokumentazioa jasota dago. Honako irakaskuntza hauei dagozkien 206 ikastetxe publikotan horiek banatzea aurreikusita dago:

6. taula: 1. jarduketako gailuen banaketa

Hezkuntza	Ikastetxe kopurua	Eramangarriak	ChromeBook	Gailuak guztira
Lehen Hezkuntza	141	141	743	884
Bigarren Hezkuntza	48	923	974	1.897
Lanbide Heziketa	17	653	0	653
Departamentua		4	4	8
Ikastetxeak guztira	206	1721	1721	3.442

Iturria: Guk geuk egina, Departamentuak emandako datuak oinarri hartuta.

Gailu eramangarrien lehentasunezko hartzaileak ikastetxetik kanpo konektibitatea behar duten ikasle zaurgarriak izanen dira, eta mailegu moduan emanen zaizkie gailuak. Honako faktore hauek hartuko dira kontuan ikastetxeen artean banaketa egiteko orduan:

- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak.

- Ikastetxeak dagoeneko badituen konektibitadedun gailuak entregatu beharreko gailuetatik kenduko dira.

- Ikastetxe guztiek ordenagailu eramangarri bat eta ChromeBook bat izanen dituzte gutxienez, zentro unitarioetan izan ezik, non beste irizpide bat aplikatu daitekeen.

- Oinarritzko Lanbide Heziketan ChromeBook-ak entregatuko dira, eta, erdi mailako eta goi mailako graduatan, gailu eramangarriak.

Era berean, honako irizpide hauek ere hartuko dira kontuan ikastetxeen artean banaketa egiteko orduan:

- Hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleen eskolatzeko indizea ikastetxean.

- Ikastetxearen matrikulatze kopurua guztira, 2025eko urtarrilaren 1ean.

- Pobrezia erlatiboko arrisku-tasa 16 urtetik beherakoen artean 2021ean.

- Pobrezia larriko arrisku-tasa 16 urtetik beherakoen artean 2021ean.

Hezkuntza-laguntzako berriazko premia dutenen indizea eta pobrezia-arriskuko tasak haztatu egin dira, zentro bakoitzean banatu beharreko gailu kopurua kalkulatzeko.

Departamentuak honako ikasle hauek jotzen ditu zaurgarritzat: gizarte- eta hezkuntza-kalteberatasun egoeran daudelako ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eta gaitasun handiak dituzten ikasleak. Aldagai horiek aintzat hartzen dira hezkuntza-laguntzako berriazko premia duten ikasleen indizean, eta 16 urtetik beherako pobrezia erlatiboko eta pobrezia larriko arrisku tasekin batera, Konferentzia Sektorialaren Akordioaren kalteberatasunaren definizioan sartzen dira.

#EcoDigEdu programaren ondorioetarako, potentzialki edo benetan arrakasta-aukerak baldintzatzen dituzten oztopo hauetakoren bat dutenak definitzen ditu ikasle zaurgarri gisa Konferentzia Sektorialaren Akordioak: asistentziatzeko premiak (elikadura, etxebizitza, oinarriko hornidurak eta beste), eskolako premiak (familia giro egokia, eten digitala, eskolako materiala eta beste), gizarte- eta hezkuntza-premiak (jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko ekintzak eta beste), hezkuntza-premia bereziak, gaitasun handiak, ikasteko zailtasun espezifikoak, hezkuntza-sisteman berandu sar-tzea edo estali gabeko premiek eragindako ikasteko zailtasunak.

Oro har, aurreikusita dagoen ikastetxeen arteko gailu-banaketa adierazitako faktoreen eta iriz-pideen arabera da.

Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasgela digital interaktiboentzat ekipamendua, #EcoDigEdu programaren 2. jarduketa.

Kontratuaren xedea da 1.500 panel digital interaktibo, 4.600 ordenagailu integratu (OPS) eta beste zenbait ekipamendu (dokumentu-bistaragailuak, funtzio anitzeko kamerak eta bideokonferentziak egiteko 360 graduko kamerak) hornitzea, instalatzea eta martxan jartzea, ikastetxe publikoetan ikasgelak digitalizatzeko.

Lizitazioak barne hartzen ditu hornidurak (#EcoDigEdu programaren 2. jarduketa) eta irakasleak eskuratutako ekipamenduaren erabileran gaitzeko zerbitzuak ematea (#EcoDigEdu programaren 3. jarduketa).

Ikasgela bakoitzeko ekipamendua 75 edo 86 hazbeteko panel digital batek eta OPS ordenagailu integratu batek osatzen dute, eta instalatuko da lehenagotik dauden panel interaktibo guztietan nahiz eskuratutako 1.500 panel interaktibo berrietan.

Kontratuaren xedea hiru sortatan banatu zen: panel digitalak, OPS gailuak eta beste zenbait ekipamendu.

7. taula: 2. jarduketan lizitatutako sortak

Sortak	Lizitazio prezioa	Unitateak
1. Panel digitalak	4.550.120	1.500
2. OPS	7.162.501	4.600
3. Bestelako ekipamendua	790.754	860 ⁷
4. Eskaintza integratzailea	12.503.375	3.623

Iturria: Guk geuk egina, Gardentasunaren Atariko datuak oinarri hartuta.

Ez zen inolako mugarik ezarri lizitazailerako bakoitzak zer sortatara aurkezteko aukera zuen zehazteko edo lizitazailerako bakoitzari zer sorta esleitu ahal zitzaizkion zehazteko.

Behin kontratuaren legaltasuna aztertuta, ondoko hauek nabarmentzen ditugu:

- Kontratazioa arautzen duen baldintza-agiriak hiru sortak bilduko dituen eskaintza integratzaile bat aurkezteko aukera jasotzen du, hori bai, soilik sorta bakoitzarentzat eskaintza indibiduala aurkeztu duten lizitazailerako kasuan. Aukera hori baldintza-agirian berriaz aurreikusita egoteaz gain, lizitazio-iragarkian bertan ere adierazten da.

⁷ 430 dokumentu bistaratzailerako, funtzio anitzeko 300 kamera eta bideokonferentziak egiteko 130 kamera.

- Lau lizitatuak aurkeztu ziren, eta kontratazio-mahaiak bi baztertu zituen elkarren artean lotutako enpresak zirelako. Kanpoan utzi ez ziren bi lizitatuak eskaintza integratuak aurkeztu zituzten. Eskaintza integratuak aurkeztutako banakako eskaintzak hobetu behar zituen ekonomikoki, eta gainerako adjudikazio-irizpideak berdindu edo hobetu. Bada, baldintza hori azkenean adjudikaziodun bihurtutako lizitatuak bakarrik bete zuen.

Enpresa adjudikaziodunak azpikontratatu behar zituen bost enpresen zerrenda sartu zuen aurkeztutako eskaintzan. Bada, bost azpikontratistetatik lauren kasuan, ez dago jasota erantzukizunpeko adierazpenik azaltzeko kontratuaren baldintzak betetzearekin ados daudela eta ez dutela kontratatzeke debekurik. Baldintza-agirian ezarritakoaren kontra, ez dago jasota enpresa horiekiko konpromiso formala dagoela frogatzen duen jatorrizko dokumenturik, enpresa bakoitzarekin azpikontratatu den kontratuaren zatia zein den zehazten duenik.

Kaudimena egiaztatzeke orduan, berriz, adjudikaziodunak ez zuen aurkeztu kontratua gauzatzeko adierazitako bost azpikontratistetatik laurekin konpromiso formala zegoela frogatzen zuen dokumenturik, eta ez zuen frogatu azpikontratistek kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak zituztela.


2025eko otsailaren 10eko dokumentu bat dago, non adjudikaziodunak adierazten duen hiru enpresarekin azpikontratatu duela, guztira kontratuaren % 12,8. Bada, enpresa horietako bat ez zegoen adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzan sartuta, eta ez dago jasota enpresa horrekin egingutako azpikontratazioari buruzko inolako dokumentaziorik.

- 2. jarduketa ikasgela digital gehienak aldeztetik panel digital bat zuten ikasgelak OPS ordenagailu integratuak gehituz egokitzeko pentsatuta zegoen, hau da, jarduketa osagarriak eginez.

Aldeztetik digitalizatuta zeuden ikasgeletan ekipo osagarriak gehitzeko jarduketak, mugarrak eta helburuak justifikatzeko ezarritako baldintzak bete ditu, izan ere:

- Aurretik gutxienez 62 hazbeteko panel digital interaktibo bat zegoen ikasgelotan.
- OPS ordenagailu integratuarentzako elementu osagarriak erosi dira, hala nola irakurgailuak, web kamerak, *dock station*-ak, ukipen-monitore osagarriak, tableta digitalizatuak.
- Ikasgela bakoitzeko 2.246 euroko inbertsioa egin da, beraz, ezarritako 1.000 euroko gutxienezko inbertsioa baino handiagoa.

2024ko abenduaren 31n INTEFera bidalitako datuen arabera, digitalizatutako 4.568 ikasgeletatik –hasiera batean 3.623 zeuden aurreikusita–, gehien-gehienak elementu berriak gehituta eratu ziren, nagusiki OPS ordenagailu integratuak.

2024ko abenduaren 31n eratu zeuden ikasgela digitalak, jarduera motaren arabera

Iturria: Guk geuk egina, departamentuak INTEFera bidalitako datuak oinarri hartuta.

Ikasgela digitalak ikastetxeka, 2024ko abenduaren 31n

Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza Departamentuak INTEFera bidalitako datuak oinarri hartuta.

Departamentuak Konferentzia Sektorialaren Akordioan eskatutako zehaztapenak bete ditu, eskuratutako elementu guztiak gastu hautagarrien barruan sartzen baitira.

8. taula: 2. jarduketaren adjudikazioa

Sortak	Adjudikazioaren prezioa	Eskuratutako unitateak	Unitateko prezioa
1. Panel digitalak	4.311.093	1.500	2.874€
2. OPS	5.704.245	4.600	1.240€
3. Bestelako ekipamendua	525.874	860	250€
4. Eskaintza integratzailea	10.541.212	-	

Iturria: Guk geuk egina, kontratazio-espeditentea oinarri hartuta.

Ekipoak eskuratu ondoren, honako irizpide hauek jarraitu dira ikasgelak digitalizatzeko ikastetxe publikoak aukeratzeko:

- Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta beste irakaskuntza batzuetako ikastetxe publikoak.
- Panelik gabeko ikasle-taldeak.

Banaketa prozesua adjudikaziodunarekin batera egin zuen departamentuak, aurreko irizpideei jarraituz. Zerrenda bat dago, eta, bertan, ikastetxe hartzaileak identifikatzen dira, eta banaketa nola eginen den azaltzen da, ikastetxe bakoitzak zenbat gailu eta zer motatakoak jasoko dituen zehaztuz. 2024ko abenduaren 31n, ikasgelak digitalizatzeko dagoeneko entregatutako eta instalatutako ekipamendua honakoa zen:

9. taula: 2024ko abenduaren 31n instalatuta zeuden panel interaktiboak

Hezkuntza	Ikastetxe kop.	Panel interaktibo kop.	Entregatutakoen kopurua 2024ko abenduaren 31n	Instalatutakoen kopurua 2024ko abenduaren 31n
Haur eta Lehen Hezkuntza	166	832	811	778
Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa	46	112	109	104
Lanbide Heziketa	21	325	309	279
Araubide bereziko irakaskuntzak	17	88	85	84
Departamentua		6	6	5
Guztira	250	1.363	1.320	1.250

Iturria: Guk geuk egina, departamentuaren datuak oinarri hartuta.

Guztira 1.500 panel interaktibo eskuratu ziren; horietatik 1.363 aurreko taulan adierazitako ikastetxe publikoei esleitu zaizkie, eta, beste 137 panelen kasuan, ez dago jasota nola banatuko diren.

10. taula: 2024ko abenduaren 31n instalatuta zeuden OPS gailuak

Hezkuntza	Ikastetxe kop.	Ekipoen kop.	Entregatutako eta instalatutako OPS gailuen kop.
Haur eta Lehen Hezkuntza	168	2.411	2.411
Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa	49	1.471	1.471
Lanbide Heziketa	23	437	437
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	18	271	271
Zehaztu gabe		10	
Guztira	258	4.600	4.590

Iturria: Guk geuk egina, departamentuaren datuak oinarri hartuta.

Eskuratutako OPS ia guztiak instalatuta eta martxan zeuden.

11. taula: 2024ko abenduaren 31n instalatuta zeuden beste gailu batzuk

Hezkuntza	Ikastetxe kopurua	Entregatutako unitateak
Haur eta Lehen Hezkuntza	165	1.211
Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa	49	368
Lanbide Heziketa	16	111
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	18	128
Ikasnova ikasgela	1	50
Guztira	249	1.868

Iturria: Guk geuk egina, departamentuaren datuak oinarri hartuta.

Konferentzia Sektorialaren Akordioak ezartzen duen bezala, Erregimen Orokorreko irakaskuntzen zuzkidura lehenetsi da (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoa). Araubide Bereziko Irakaskuntzako eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeek ere jaso dute ekipamenduaren zati bat.

Aurretik eskuratutako ekipo batzuen balio-bizitza dagoeneko iraungi den arren, oraindik ez dira ekipo berriekin ordezkatu.

3. jarduketa: #EcoDigEdu programako «gaikuntza»

Ikasgela digitaletarako hornitutako ekipamendua erabiltzeko gaikuntza teknikoa irizpide gisa sartu zen OPS ordenagailuen sorta esleitzeko orduan, eta ordenagailuon hornitzaileari esleitu zitzaion.

#EcoDigEdu programako gaikuntza irakasleak ikasgeletan instalatzen diren ekipo berriak erabiltzeko eta mantentzeko prestatzera bideratuta dago.

Hauek dira gaikuntzaren hartzaileak:

- Ikastetxe publikoetako irakasleak.
- Zuzendaritza taldeak, teknologiako koordinatzaileak eta Ikasnova ikasgelen arduradunak.
- DGEDUko teknikariak.

Adjudikaziodunak gaikuntza teknikoko plan bat aurkeztu zuen DGEDUko teknikariei trebakuntza emateko, bai eta irakasleei eman beharreko prestakuntzaren egutegi bat ere, saioak, edukia eta iraupena zehaztuz. Plan hori aurreratutzat jo zen.

Hala ere, ez da bete irakasleei ekipamendua erabiltzeko gaikuntza teknikoa emateko ezarritako zortzi asteko epea bete, hornitutako ekipamendua instalatu zenetik kontaktzen hasita.

Prestakuntza baloratzeko departamentuak egindako lan dokumentu batean adierazten denez, 2024ko azaroaren 7an ikastetxe guztiei jakinarazi zitzaion prestakuntza gauzatzeko jarraitu beharreko prozesua.

Hitzorduen hiru egutegi ezarri dira, bai eta prestakuntza emateko ikastetxeak lehenesteko irizpideak ere, hala nola tamaina ertaineko ikastetxeak, eskualdea, hizkuntza, eta Bigarren Hezkuntzako Institutuak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak. Jasota dago, halaber, panel interaktiboak eta OPS ordenagailu integratuak hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren adjudikaziodunak, prestakuntza ematen duenak, 2025eko urtarrilaren 31n jakinarazi ziola zentroen lehen txandari prestakuntza emateko egutegia.

3. helburua. #EcoDigEdu programako jarduketan eta jarduketei lotutako funtsen jarraipena eta kontrola egiteko sistema egokirik ezarri al da?

Kontratuaren exekuzioaren jarraipena eta kontrola.

Aipatutako kontratuak Hezkuntza Saileko Hezkuntzako Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzuak gainbegiratu, ikuskatu eta kontrolatzen ditu.

Adierazi den bezala, 2024ko abenduaren 31n gailu eramangarriak oraindik ikastetxe publikoen artean banatu gabe zeuden.

Ikasgela digitalei dagokienez, OPS ordenagailu integratuak instalatu dira dagoeneko bai eskrutatutako panel berrietan bai aurretik ikastetxeetan zeuden gainerako panel interaktiboetan ere.

Ikastetxeetako instalazioari buruzko dokumentazioaren lagin bat aztertuta egiaztatu dugunez, adjudikaziodunak, besteak beste, honako informazioa bidali dio departamentuari ikasgela bakoitzeko: ekipamenduaren instalazioaren argazkiak, panela instalatu den horma erakutsiz; OPS ordenagailu integratua instalatu den panelaren inbentario-zenbakia eta serie-zenbakia; panela hormara lotzen duen katearen argazkia; panelera kableak nola sartzten diren erakusten duen argazkia; ikasgelan wifi konexioa dagoela eta OPS ordenagailu integratua Internetera konektatuta dagoela erakusten duten argazkiak; eta proiektua gauzatu dagoela erakusten duten 3Dko pantaila-irudiak eta irudikatzeak. Era berean, ikastetxeetan ekipamendua entregatuta eta instalatuta dagoela egiaztatzen duten emate-agiriak ere aurkeztu dira.

Panelen instalazio-fitxak ere jaso dira, non argazkiak eta ikastetxeak berak panel bakoitzeko zehaztu behar dituen datu teknikoak jasotzen diren, adibidez, zer ikasgelatan instalatu den.

Departamentuaren helburua da dokumentazio hori guztia inbentarioak kudeatzeko GLPI aplikazioan sartzea, informazioa zentralizatuta egon dadin eta ziurtapenaren unean erraz erabiltzeko moduan izan dadin.

Adjudikaziodunak proiektuburu bat izendatu du kontratua gauzatzeko, eta, hala, proiektuburu hori da departamentuaren solaskidea bai kontu teknikoak jorratzeko bai proiektuaren bilakaeraren jarraipena egiteko.

Helburuak betetzea

#EcoDigEdu programaren mugari eta helburu kritikoek beteta egon behar dute 2025eko abenduaren 31n, eta ministerioaren aurrean justifikatuta 2026ko martxoaren 31n.

Departamentuak 2024ko ekitaldian osorik beteko zituela zuen aurreikusita. Aldiz, hiru jarduketetako batean ere ez dira bete baldintza-agirietan aurreikusitako entrega eta instalazio epeak, departamentuari berari egotz dakizkiokeen arazo teknikoen ondorioz.

Hala, 2024ko abenduaren 31n ez zegoen ziurtatuta #EcoDigEdu programaren hiru jarduketetako bakar batean ere bete zirenik jarritako helburu ez-kritikoak.

Kontabilitate-jarraipena

Estatuko Administrazio Orokorretik jasotako transferentzien ondoriozko diru-sarrerak, Susperitze eta Erresilientzia Mekanismotik datozenak, legez daude behartuta Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren proiektuak finantzatzera. Gastua egiten ez bada edo aurreikusitako helburuak osoki edo partzialki bete gabe geratzen badira, foru administrazioa behartuta egonen da jasotako funtsak osoki edo partzialki itzultzera, kasuan kasu.

#EcoDigEdu azpiproiektuarekin lotutako diru-sarreraren eta gastuen jarraipena kontabilitate-sisteman egiten da, finantzaketa lotuko modulu baten bidez.

Modulu horiek SAP sisteman PEP elementu gisa identifikatzen dira (diru-sarrerak eta gastuak lotzeko urte anitzeko egiturak dira, finantzaketa lotuko eskemak osatzen dituztenak).

Diru-sarreraren eta gastuen kontabilitate-jarraipena programako hiru jarduketetako bakoitzerako egiten da.

Hiru jarduketetako bakoitzak kode bat du esleituta, gastu-proiektua identifikatzeko. Kode horretan honako hauek erregistratzen dira: behin betiko aurrekontua; baimendutako, konprometitutako eta aitortutako gastua; eta ekitaldi bakoitzean aitortutako eta kobratutako diru-sarrerak.

4. helburua. Ekipamendua hornitzeko jarduketekin batera, hartzen al dira ekipamendu horrek arrakala digitala murrizten eta hezkuntza-sistema digitalizatzen benetan lagun dezan beharrezkoak diren neurriak?

Ekipamendu-horniduren eraginkortasuna lortzeko hartu diren neurriak aztertu ditugu: inbentarioa egitea, ekipamendua martxan jartzea, gailuak ikasle zaugarriari entregatzea, inplementazio-faseak ikastetxeetan bertan koordinatzea, ekipamenduaren gaineko laguntza informatikoa eskaintzea, gailuen eta ikastetxeen konektibitatea, eta inbertsioak epe ertainean eta luzean jasagarriak izatea bermatzea.

Inbentarioa

Ekipamendua inbentarioaren bidez kontrolatzen da.

Ekipamenduaren inbentarioa departamentuak kudeatzen du, GLPI aplikazioaren bidez zehazki. Ikastetxe guztiak sar daitezke aplikazioan beren ikastetxeetan dauden ekipoak kontsultatzeko, ekipoei alta edo baja emateko, aldaketak egiteko eta beste. Baliabide guztiak [online](#) daude, berehala sartzeko aukera izateko. Ikasnova programaren inbertsioen inbentarioa aurretik ere egiten ari zen dagoeneko GLPI aplikazioarekin.

Kontratazioko baldintza-agirietan ezartzen denez, adjudikaziodunek honako zeregin hauek bete behar dituzte derrigorrez:

- Elementu bakoitza departamentuaren kodifikazio estandarri jarraituz serigrafatzea.
- Departamentuari ekipo bakoitzaren datuak bidaltzea: ekipamendu mota, modelo, serie-zenbakia, inbentario-zenbakia, egoera, kokapena eta beste.

Behin informazioa jasota, departamentuak erregistratzen du informazioa inbentarioa kudeatzeko aplikazioan.

Ikasgelak digitalizatzeko erositako ekipamendua, 2024ko abenduaren 31n inbentariatuta zegoena, honako hau da:

12. taula: 2024ko abenduaren 31n inbentariatuta zeuden ekipoak

Panel interaktiboak

Hezkuntza	Ikastetxe kop.	Panel interaktibo kop.	Inbentariatutakoak
Haur eta Lehen Hezkuntza	166	832	812
Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa	46	112	109
Lanbide Heziketa	21	325	312
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	17	88	85
Departamentua		6	4
Guztira	250	1.363	1.322

OPS

Hezkuntza	Ikastetxe kop.	Entregatutako eta instalatutako OPS gailuen kop.	Inbentariatutakoak
Haur eta Lehen Hezkuntza	168	2.411	2.380
Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa	49	1.471	1.466
Lanbide Heziketa	23	437	408
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	18	271	172
Guztira	258	4.590	4.426

Ekipo bakoitzaren gainean, honako datu hauek jasotzen dira besteal beste: ekipamendu mota, modelo, serie-zenbakia, inbentario-zenbakia, egoera eta kokapena. *Mailegu-sistema (1. jarduketeta: gailu mugikorrak)*

1. jarduketaren helburu nagusia da gailuak eskuratzea ikasle zaurgarriek jasaten duten eten digitala ezabatzeko.

Adierazi bezala, gailu eramangarriak hornitu zaizkio dagoeneko departamentuari, baina honek ez ditu oraindik ikastetxeen artean banatu, eta, beraz, ez zaizkie maileguan eman ikasle zaurgarriei, zeinak izanen baitira hartzaile nagusiak.

Departamentua arduratzen da gailuak erosteaz eta banatzeaz (normalean kontratisten bitartez). Hala ere, behin ekipoak banatu ondoren, ikastetxeak izanen dira ikasleen artean azken banaketa egiteaz arduratuko direnak.

Oraindik ez da definitu gailu mugikorrek eskatzeko eta mailegatzeko sistemarik, guztiz beharrezkoa dena ziurtatzeko ekipamendua ikastetxetik kanpo konektatzeko beharra duten ikasle zaurgarrientzat izanen dela.

Ikasleen artean banaketa egiteko irizpideak ikastetxe bakoitzak erabaki ditzake. Era berean, inbentarioa kudeatzeko aplikazioak gailu bat zer zentrotan dagoen zehazten du, baina ez du identifikatzen gailua jasotzen duen ikaslea nor den edo zer taldetakoa den. Ildo horretan, erositako ekipoen azken hartzailearen gaineko kontrola mugatua da.


Inbertsioen jasagarritasuna epe ertainera eta luzera

2017-2018 ikasturtean Ikasnova programa abian jarri zenetik 2024ra arte, departamentuak 37 milioi baino gehiago inbertitu ditu ikastetxe publikoen digitalizazioan, #EcoDigEdu programaren inbertsioak aintzat hartu gabe.

Digitalizazioa bermatzeko beharrezkoa den ekipamenduak gastu handia eskatzen du konponketetan eta mantentze-lanetan, egunero-egunero erabiltzaile askok erabiltzen dituzten tresnak baitira eta higadura handia jasaten baitute.

Hurrengo grafikoan, ikastetxe publikoetako ekipamendua konpontzeko eta mantentzeko 2017-2024 aldian egindako gastua ikus daiteke.


Ikasnova programako «Informatikako eta telekomunikazioko ekipoak» 2160. gastu ekonomikoaren bilakaera. 2017tik 2024ra bitarteko aldia.



Iturria: Guk geuk egina, SAPG21 datuak oinarri hartuta.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak helburu berarekin egindako gainontzeko gastuarekin alderaketa eginez gero, ikus dezakegu informatikako eta telekomunikazioko ekipoen konponketa eta mantentze gastuen hazkundea handiagoa izan dela ikastetxeetan.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak ekipoak konpontzeko egindako gainontzeko aurrekontu-gastuaren eta lkasnova programaren barruan egindakoaren arteko alderaketa. 2017-2024 aldia.




Ikus daitekeenez, ikastetxeetan egindako gastuak etengabe egin du gora aztertutako aldian. 2024ko ekitaldian, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak ekipoak konpontzeko eta mantentzeko egindako gastu osoaren ia % 33 izan zen.

Ekipamendu teknologikoaren beste ezaugarri bat zaharkitze-arriskua da. Ordenagailu eraman-garri baten eta monitore interaktibo baten batez besteko bizitza hiru eta bost urte artekoa da⁸.

#EcoDigEdu planaren 1. eta 2. jarduketak inplementatu aurretik, ikastetxeetako ekipamendua-ren zati handi bat balio-bizitzaren amaieran zegoen jada.

⁸Hezkuntza Departamentuko teknikariek emandako datuak.

Gailu mugikorren antzintasuna (ChromeBook-ak eta eramangarriak).




Iturria: Guk geuk egina, GLPI aplikazioaren datuak oinarritu hartuta.

Ikastetxeetan erabiltzen ari ziren gailu mugikorren % 20k baino gehiagok balio-bizitza iraungita zuten dagoeneko, eta gehien-gehienak, berriz, ordezteko aldiari zeuden jada, hau da, hiru eta lau urte artean zituzten. Datuok bat datoz departamentuak COVID-19aren aldiari egin zituen inbertsioekin.

Panel interaktiboaren egoera, berriz, honakoa zen:

Panel interaktiboaren antzintasuna.




Iturria: Guk geuk egina, GLPI aplikazioaren datuak oinarritu hartuta.

Ikasnovaren programaren bidez egindako jarduketaren gehienek irakaskuntzetan teknologia berriak txertatzea zuten helburu. Hori bai, behin inbertsio horiek egin ondoren, ezinbestekoa da ekipamenduen funtzionamendu onari eusteko eta ekipoak era planifikatuan eta pixkanaka-pixkanaka berrietzeko beharrezko neurriak hartzea.

2017-2024 aldiko aurrekontu-betearazpena aztertuta, alde handiak ikusten dira hasieran aurrekontuan jasotako kopuruen eta azkenean ekitaldi bakoitzean erabilitako kopuruen artean.

Ikasnova programaren 6. kapituluko hasierako kredituen eta betebehar aitortuen arteko alde-raketa. 2017-2024 aldia.




Iturria: Guk geuk egina, SAPG21 datuak oinarri hartuta.

Azpimarratzekoa da COVID-19aren pandemiak eragin nabarmena izan zuela aurrekontuetan 2020an eta 2021ean, ekipoetan aurreikusi gabeko inbertsioak egin baitziren irakaskuntza digitala modu telematikoan ematea bermatzeko. 2022-2024 aldian, berriz, alderantzizko egoera eman zen: hasierako kreditua nabarmen handiagoa da azkenean egindako gastua baino. Efektu hori #EcoDi-gEdu programari zor zaio, zeina 2022az gerotik aintzat hartzen den aurrekontuetan, oraindik inolako betebeharririk aitortu ez den arren.

1. ERANSKINA: IKASNOVA PROGRAMA

Hezkuntza-sistemaren digitalizazioa 2017-2018 ikasturtean hasi zen Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan, hezkuntza digitalizatzeko Ikasnova planaren ezarpenarekin. Programa horrek azpiegiturak, ekipamendu digitala eta irakasleen eta ikasleen gaitasun digitala hobetzeko metodologiak ditu ardatz. Honakoak dira programak lortutako mugarri nagusiak:

1 Ikasnova programaren barruan egindako jarduketak (2017-2023)




Iturria: Guk geuk egina, departamentuak emandako datuak oinarri hartuta.

Egindako jarduketan artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Ikasnova ikasgelak ezartzea: pedagogia, teknologia eta altzari funtzional eta moldagarriek osatutako espazioak izatea dira Ikasnova ikasgelen hiru oinarriak. Departamentuaren datuen arabera, 2024ko abenduaren 31n 81 Ikasnova ikasgela zeuden 81 ikastetxe publikotan.
- Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak 10,72 milioi euro inbertitu zituen 2017-2019 aldiran ekipamendu teknologikoan, ikasleentzako ChromeBook-ak eskuratuz eta konektibitate-azpiegiturretan 3,48 milioi gastatuz (Interneteko konexioa, sareko elektronikoa eta azken belaunaldiko wifi sistemen inplementazioa).
- Urrutiko irakaskuntza digitala ezarri zuen COVID-19aren pandemiaren testuinguruan 2020-2021 ikasturtea posible egiteko, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak 7,65 milioi euro bideratu zituen 2020an eta 6,54 milioi 2021ean Nafarroako sare publikoko ikasle bakoitzak gailu bat izatea bermatzeko, zehazki, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Batxilergoko 2. mailara eta Lanbide Heziketan.
- 2017-2023 aldiran, 3.179 monitore interaktibo erosi ziren ikastetxe publikoetan instalatzeko.

Departamentuaren datuen arabera, 2023an ikastetxe publikoek 18.000 ekipo inguru zituzten, mahai gainekoak zein eramangarriak, eta ikasleentzako 50.000 gailu inguru ere bazituzten, «ikasle bat ordena-gailu bat» ereduia ezarri ahal izateko.

Ikasnova programan egindako inbertsioak



Iturria: Guk geuk egina, SAPG21 datuak oinarri hartuta.

Era berean, Ikasnova programaren esparruan, Nafarroako Foru Komunitatearen Banda Zabalaren Plan Zuzentzailea ikastetxeetan ere jarri zen martxan, helburu hartuta konektibitatea eta wifi sareak hobetzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoetako ikasgela guztietan 2017-2018 ikasturtetik, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasgela guztietan 2020-2021 ikasturtetik.

Banda Zabalaren Plan Zuzentzailearen helburuak ikastetxe publikoetan (2017-2024)




Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Foru Komunitatearen Banda Zabalaren Plan Zuzentzailearen txosten exekutiboetan oinarrituta (lehen eta bigarren planen txostenak).

2022-2023 ikasturtean, titulartasun publikoko erregimen orokorreko irakaskuntzako 232 ikastetxe zeuden, 3.800 unitate eta 74.117 ikasle matrikulatuta zituztenak.

Ikasnova programari esker, Nafarroako Foru Komunitatea bere ikastetxeetan digitalizazio-maila handiena duen autonomia-erkidegoetako bat da. [1. eranskinean](#) Nafarroako ikastetxe publikoen zenbait adierazle jaso ditugu, estatuko batez bestekoarekin eta autonomia-erkidegoekin alderatuta. Ikus daitekeen bezala, Nafarroa lehen postuetan dago adierazle guztietan, bai estatuko batez bestekoarekin alderatuta bai autonomia-erkidegoekin alderatuta.


2. ERANSKINA. IKASTETXEETAKO DIGITALIZAZIOAREN GAINEKO ADIERAZLEAK

Ordenagailuko ikasleen ratioaren bilakaera ikastetxe publikoetan




Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioren ikastetxe ez-unibertsitarioei buruzko «Informazioaren eta komunikazioaren gizartea ikastetxeetan» laneko datuak (2019-2020 ikasturteko datuak ez daude eskuragarri).

Ordenagailuko ikasleen indizea autonomia-erkidegoka. 2022-2023 ikasturtea.




Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioren ikastetxe ez-unibertsitarioei buruzko «Informazioaren eta komunikazioaren gizartea ikastetxeetan» laneko datuak.

Sistema digital interaktiboak dituzten ikastetxe publikoetako ikasgelen ehunekoa. 2016-2017 eta 2022-2023 bitarteko ikasturteak.




Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioren ikastetxe ez-unibertsitarioei buruzko «Informazioaren eta komunikazioaren gizartea ikastetxeetan» laneko datuak (2019-2020 ikasturteko datuak ez daude eskuragarri).

Sistema digital interaktiboak dituzten ikastetxe publikoetako ikasgelen ehunekoa autonomia-erkidegoka. 2022-2023 ikasturtea.




Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioren ikastetxe ez-unibertsitarioei buruzko «Informazioaren eta komunikazioaren gizartea ikastetxeetan» laneko datuak.

Ordenagailu motaren bat duten etxeen ehunekoaren bilakaera. 2013-2024 seriea.




Iturria: Etebizitzetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta. INE.

Ordenagailua duten etxeen ehunekoa autonomia-erkidegoka. 2024. urtea.




Iturria: Etebizitzetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta. INE.

Internetera sarbidea duten etxeen ehunekoa. 20013-2024 seriea.



Iturria: Etxebizitzetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta. INE.

Internetera sarbidea duten etxeen ehunekoa autonomia-erkidegoka. 2024. urtea.



Iturria: Etxebizitzetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta. INE.

3. ERANSKINA. IKASTETXE PUBLIKO KOPURUARI ETA IKASTETXE BAKOITZEKO MATRIKULA KOPURURI BURUZKO DATUAK

13. taula: Ikastetxe kopurua irakaskuntza motaren arabera.

	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa	Lanbide Heziketa	Araubide Bereziko Irakaskuntzak
Haur eta Lehen Hezkuntza	158			
Bigarren Hezkuntza		29		
Derrigorrezko bigarren hezkuntza		19		
Lanbide Heziketa			16	
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	10			
Helduen Oinarrizko Hezkuntza				6
Hezkuntza Berezia				2
Arte Plastikoetako eta Diseinuko Eskolak				2
Hizkuntza Eskola Ofiziala				2
Musika Kontserbatorio Profesionala				1
Goi Mailako Musika Kontserbatorioa				1
Helduen Bigarren Hezkuntza				1
Dantza Eskola				1
Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala				1
Guztira	168	48	16	17

Iturria: Guk geuk egina, Tableau-ko datuak oinarri hartuta (datuak 2024ko ekainaren 6an hartutakoak dira).

14. taula: Matrikula kopurua irakaskuntza motaren arabera.

	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa	Lanbide Heziketa	Araubide Bereziko Irakaskuntzak
Haur eta Lehen Hezkuntza	36.647			
Bigarren Hezkuntza		20.230		
Derrigorrezko bigarren hezkuntza		4.883		
Lanbide Heziketa			9.289	
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	1.864			
Helduen Oinarrizko Hezkuntza				7.912
Hezkuntza Berezia				164
Arte Plastikoetako eta Diseinuko Eskolak				755
Hizkuntza Eskola Ofiziala				4.118
Musika Kontserbatorio Profesionala				-
Goi Mailako Musika Kontserbatorioa				372
Lehen Hezkuntza	183			
Helduen Bigarren Hezkuntza				1.068
Dantza Eskola				-
Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala				7.070
Guztira	38.694	25.113	9.289	21.459

Iturria: Guk geuk egina, Tableau-ko datuak oinarri hartuta (datuak 2024ko ekainaren 6an hartutakoak dira).

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**HEZKUNTZA KONTSEILARIAREN ALEGAZIOAK, NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN 2025-0048 EBAZPENARI (BEHIN-BEHINEKO FISKALIZAZIO-TXOSTENA, "NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKO HEZKUNTZA-SISTEMA DIGITALIZATZEKO 2021-2024 PROGRAMA"-RI BURUZKOA) AURKEZTUAK**

2025-0048 Ebazpena jasorik, zeinak gaitzat baitauka behin-behineko fiskalizazio-txostena, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistema Europar Batasuneko Next Generation funtsen abaroan digitalizatzeko programari buruzkoa, Hezkuntzako kontseilariak, bere eskumenen jardunean, honako alegazio hauek aurkeztu ditu, txostenetik zehazturiko pasarteei dagokionez:

Txosteneko 16. orrialdea, non baieztatzen baita:

"...aurkeztutako dokumentuetako batzuk inkoherenteak dira. Ez dago jasota Kontratazio Mahaiak lizitatuak ohartarazi zituenik aurkeztutako dokumentazioa zuzen zezaten"

Alegazioa:

Bi kontratuetan, adjudikaziodunek enpresa azpikontratatuari buruzko dokumentazioa aurkeztu zuten, zeinak, pleguetan eskaturiko informazioa jasotzen bazuen ere, kasuren batean erreferentzia gurutzatuak baitzeuzkan, bi prozedura horien artean dokumentuak berrerabiltzearen ondoriozkoak, ustez. Zehazki, bi kontratuetan azpikontrataturiko enpresa batek aurkezturiko aitortpenak akats baten ondorioz egiten zion erreferentzia beste espedientekoa zen adjudikaziodunari. Oker hori gero izan zen onbideratua, adjudikaziodunak bidalitako dokumentazio osagarrian.

16. orrialdea, ikasgela digitalen kontratuaren adjudikazioan beherapena aprobetxatzeari dagokionez:**Alegazioa:**

Ikasgelak digitalizatzeko ekipamendurako kontratuaren adjudikazioan izandako beherapenetik eratorritako aurrezpenari dagokionez, Hezkuntza Departamentuak, 2025eko maiatzean, kontratu-aldaketarako prozesuari ekin dio, deskonpromisoaren zenbaterako osoa ekipamendu-erosketa gehigarriari aplikatzeko, pleguetan aurreikusten denari jarraikiz. Horretarako, <https://compras.educacion.navarra.es>, plataformaren bidez ikastetxeengandiko informazio-bilketa bat egin da, premia zehatzak identifikatzeko eta hornidura gehigarri horien norakoak lehentasunen arabera antolatzeko. Egungo aurreikuspenaren arabera, ekipamendu berria 2025-2026 ikasturtearen hasieran egonen da ikastetxeetan instalatuta, programan ezartzen diren epeak betetik eta esleituriko finantzaketaren % 100en exekuzioa bermaturik.

16. orrialdea, irakasleen prestakuntzari dagokionez:**Alegazioa:**

Esan dezakegu ezen alegazioak aurkezteko egunean 251 ikastetxeen % 95 baino gehiagok jadanik egina zeukatela prestakuntza, eta gainerakoek ekaina baino lehenago amaitzeko moduan daukatela egitaraua.

17. orrialdea, gailu eramangarrien banaketari eta trazabilitateari dagokionez:**Alegazioa:**

Gailu mugikorrek jadanik banatu zaizkie sare publikoko ikastetxeei, lehentasunez ikasle zaurgarrientzat utzirik, Hezkuntza Departamentuak finkaturiko irizpideen arabera. GLPI inbentario-aplikazioak modua ematen du gailu bakoitza esleitu zaion ikastetxearen jarraipena egiteko eta, kasua bada, ikasle zehatzei maileguan emandako gailua erregistratzeko. Harik eta gailuak ikastetxetik kanporako eskatzen ez diren arte, ikasgelan erabiltzen dira, eta ikastetxeari atxikita diraute; behin mailegua formalizatuta dagoenean, GLPIN eguneratu egiten da izendun esleipena.

Zenbait pantaila-irudi atxiki dira, erakusten dutenak nola geratzen den GLPIN erregistratua erabiltzaile baten-tzako ekipoa (izena pribatutasunagatik estalia izan da) eta nola egiten den alderdiek sinatu ohi duten esku- ratze-akta.

NOMBRE	ENTIDAD	NÚMERO DE INVENTARIO	USUARIO	MODELO	NÚMERO DE SERIE	TAMAÑO DE PANTALLA (CHROMEBOOKS)	TIPO DE PANTALLA (CHROMEBOOKS)	ESTADO	COMENTARIOS	GROUP IN CHARGE OF THE HARDWARE	Nº DE LINEA:
1Mutilva-CBK174258	Entidad raíz > CENTROS > Mutilva - CPEIP Mutilva S. Pedro HLHP	CBK174258	[Redacted]	ASUS CR1104FG	S9NXLPO0S467373	116"	Táctil	Entregado	ASUS CR1104FG eSIM Suministrador: VODAFONE Fecha de suministro: 18/12/2024 Fecha fin de garantía: 3 años	[Redacted]	6973
2Sang-CBK174038	Entidad raíz > CENTROS > Sangüesa - IES Sangüesa Sierra de Leyre BHI	CBK174038	[Redacted]	ASUS CR1104FG	S9NXLPO0S82437A	116"	Táctil	Entregado	ASUS CR1104FG eSIM Suministrador: VODAFONE Fecha de suministro: 18/12/2024 Fecha fin de garantía: 3 años	[Redacted]	6973

chromebooks - 1Mutilva-CBK174258

Entidad raíz > CENTROS > Mutilva - CPEIP Mutilva S. Pedro HLHP

Chromebooks

Nombre: 1Mutilva-CBK174258

Ubicación del elemento: [Dropdown]

Technician in charge of the hardware: [Dropdown]

Group in charge of the hardware: [Dropdown]

Usuario: [Redacted]

Grupo: [Dropdown]

Asociable a una petición: Sí

Tipo de pantalla (Chromebooks): Táctil

Dominio: [Dropdown]

¿Dar de baja?: No

Código de eSIM: 3456550240011

Comentarios: ASUS CR1104FG eSIMsuminis

Estado: Entregado

Tipo: ChromeBook-Alumnado

Fabricantes: ASUS

Modelo: ASUS CR1104FG

Número de serie: S9NXLPO0S467373

Número de inventario: CBK174258

Tamaño de pantalla (Chromebooks): 116"

Suministro - año: 2024

Proveedor: VODAFONE

¿Tiene eSIM?: Sí

Nº de línea: 6973

Nombre	Entidad	Archivo	Enlace web	Encabezado	Tipo MIME	Etiqueta	Fecha
Documento: Entrega Entregá-2025-05-30 11:48:53	Entidad raíz > CENTROS > Mutilva - CPEIP Mutilva S. Pedro HLHP	2025-05-30_50555.pdf		Contrato de entregas	application/pdf	#015b461f-e509fb39-68397063ab1d3.79934834#	30-05-2025 11:48

18. orrialdea, ikastetxeaz kanpoko konektibitateari dagokionez:

Alegazioa:

Abian da jada gailuek ikastetxeaz kanpo konektibitatea izan dezaten bermatzeko plataforma. Soluzio horrek barne hartzen du datu mugikorren kudeaketa zentralizatua eta linea-erabileraren ikuskapena, eta modua ematen du beharra duten ikasleei konektibitatea segurtasunez eta kontrolpean esleitzeko.

21. orrialdea, inbentario-aplikazio informatikoaren garapenari dagokionez:

Alegazioa:

Abian dira inbentario-aplikazio informatikoaren indarkuntza eta eboluziorako lanak, ikastetxeetako ekipamendu teknologikoa erregistratu, kudeatu eta granularki kontrolatzeko duen ahalmena arian-arian hobetzeko, bai ikasgeletan instalatuta dagoena-rena, bai ikasleei maileguan emandakoarena.

39. orrialdea, gailu eramangarrien banaketari dagokionez:

Alegazioa:

Gailu mugikorrek jadanik banatu zaizkie sare publikoko ikastetxeei, lehentasunez ikasle zaurgarrientzat utzirik, Hezkuntza Departamentuak finkaturiko irizpideen arabera.

42. orrialdea, gailu eramangarrien banaketari dagokionez (adierazi den bezala... amaierako banaketa egitea ikasleen artean):

Alegazioa:

Alegazio hauen aurkezpen-egunerako, gailu mugikorrek jadanik banatu zaizkie sare publikoko ikastetxeei, lehentasunez ikasle zaugarrientzat utzirik, Hezkuntza Departamentuak finkaturiko irizpideen arabera. GLPI inbentario-aplikazioak modua ematen du gailu bakoitza esleipenez jaso duen ikastetxearen jarraipena egiteko eta, kasua bada, gailua ikasle zehatz bati maileguan eman zaiola erregistratzeko.

Ikasle zaugarriek gailu horiek ikastetxetik kanporako eskatzen ez dituzten bitartean, ikastetxearen eskuera diraute, ikasgelan erabiliak izateko; kasu horietan, ekipoa ez da norbanako zehatz bati esleitua GLPlan, baina erregistroa eguneratu egiten da ikasleei mailegu-araubideko lagapena egiten zaienean.

42. orrialdea, eskaera eta mailegurako sistemari dagokionez:

Alegazioa:

Pandemiak irau bitartean, Hezkuntza Departamentuak EDUCA plataforman berriazko funtzionalitate bat garatu zuen, zuzendaritza-taldeei eta tutoreei modua eman ziena ekipamendu eta konektibitatea eskatzeko, horren beharrez zeuden ikasleentzat. Sistema horrexek ezarri zituen gailu-kudeaketako egungo prozeduretarako oinarriak.

#EcoDigEdu programaren abaroen, GLPI inbentario-aplikazioaren bitartez kudeatzen da gailu eramangarrien esleipena. Aplikazio horrek ahalbidetzen du ekipa bakoitza esleitu zaion ikastetxea erregistratzea eta, bidezkoa denean, ikasle zehatzei mailegu-araubidean atxikitzea.

Nahiz eta ikasleen arteko banaketaren gaineko azken bateko erantzukizuna ikastetxeek beraiek duten, departamentuak orientabide argiak zehaztu ditu, gailu horiek lehentasunez atxikiak izan dakizkien ikastetxeaz kanpoko konektibitaterako premia duten ikasle zaugarriei. Harik eta gailuak ikastetxetik kanpo behar diren arte, ikasgelan erabiltzen dira, eta GLPIIn ikastetxeari atxikita diraute; behin mailegua formalizatuta dagoenean, eguneratu egiten da haien izendun esleipena.

Ekipoen azken norakoaren trazabilitaterako prozesua funtzionamenduan dago, eta finkatze-fasean, halako moldez non pixkanaka hobekuntzak txertatzen ari baitira, ekipamenduaren erabilera errealarren gaineko kontrol eta jarraipen handiagorako modua ematen dutenak.

Aurreko guztia dela-eta:

Aurkezten dira alegazio hauek, xede harturik behin-behineko txostenean jasotako informazioa argitu, ñabartu eta aberastea, zehazkiago islatuz Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-digitalizazioko programaren abaroen aurrera eramandako jarduketak.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari aurkeztutako alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantsi zaizkio, zeina behin betiko txosten bihurtu den, alegazioei buruz irizten baita egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla eta ez dutela behin-behineko txostenaren edukia aldatzen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

